

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko apirilaren 2a > Astelehena > III. urtea > 140. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Baserriak aurrera egingo du, baina bakoitzaren espazioak mugatuta"

Gloria Martin

Terapeuta > 06



G2a

Liburuak hartzarren ordaindu behar > 23

TURISMOA ASTE SANTUAN
Zabalik egongo dira jaiegunetan ibarreko turismo bulegoak > 04

ARANTZAZURA ERROMESALDIA
Gipuzkoako sei mila fededun joan zen Arantzazura erromes > 05

GIPUZKOAKO TRIALSIN TXAPELKETA
Lokatzak zaildu egin zuen azken proba Arantzazun > 15

UDALA > AURREKONTUAK

Eskoriatzako Udalak gaur bozkatuko ditu aurrekontuak

SEI MILIOI ETA ERDI Aurtengo ekitaldirako, 6.494.488 euroko aurrekontua proposatzen du Eskoriatzako Udalak

BIDEGORRIA Partida handienetarikoa bat bidegorri zatia egiteko izango da: 1.150.000 euro, hain zuzen

BOZKETA Ezohiko osoko bilkuran bozkatuko du udalbatzak proposamena gaur, astelehena > 13

OSASUNA > FARMAZIAK

Elikadura nahasteen aurka

Farmaziak eta ACABE, bat eginda bulimia eta anorexia saihesteko > 02-03

POLITIKA > EUSKARIA

Maltzagako Aldarriari babesa

Euskaria Fundazioak, aberzaleen elkarlana bultzatu nahi duen taldeak, ekitaldia egin zuen zapatuan Maltzagako, Telesforo Monzonen omenezko ekitaldi baten. Ibarreko batzuk izan ziren bertan, eta Maltzagako Aldarria ere askok sinatu dute. Aldarriak burujabetza eta konponbidea eskatzen ditu. > 05

ESKUBALOIA > NESKAK

Udaberri saria, Aloñari

Oñatiko eskubaloiko gazte mailako neskek, sarituta > 19

Erramu Zapatuko feriak bergararrak kalera atera ditu aurten ere

Pasa den zapatuan Erramu Zapatuko feria egin zuten Bergaran. Animaliak eta artisautzako produktuak ikusi eta euskal jatekoak dastatzeko aukera egon zen. Kanean bero larregi egiten ez bazuen ere, taloak eta sagardoak herritarren animoak berotzen lagundu zuten. Trikitilariak ere, kalez kale ibilita, egunari soinua jarri zioten, eta joaldunek ere beste horrenbeste egin zuten. > 09



BEHIAK Ganadu ederra erakutsi zuten azokan, eta begirada asko erakarri zituen.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Bertatik bertara > 07
Iritzia > 08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saillatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32



Laster arte, irakurle!

Aste Santuko oporrak hartzen ditu ASTELEHENEKO GOIENKARIAK ere. Apirilaren 12ra arte egongo gara oporretan, eta gure hurrengo zenbakia hilaren 16an izango duzu eskuartean. Egubakoitzeko GOIENKARIA etzi, eguaztena, jasoko duzu.

Barruan, Arrasate pilota taldearen posterra



comercial BRUNET

Gama altuko inausketarako motozerra

zilindrada: 26,90 zK
potentzia: 1,25 zP
pisua: 2,90 Kg

Eta gainera, ortu, lorategi eta basoetarako makinak. 200 modelo baino gehiago zure eskura.



www.comercialbrunet.com
Telleria 2 Labegaraiaeta industrialdea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52



kutxa mpresas

Loading...

“Biharkoa prest baduzu buruan zabilta lasai munduan”

Internet etengabe berritzen ari da, **kutxaempresas.net** ere bai.

Internet berrasmatzen. Baita kutxaenpresak-en webgune berria ere, sarearen abantaila guztiak kutxaenpresen eskaintza zabalari gehitzeko prestatua.

- > **Intuiziozko nabigazioa.**
- > **Diseinu gaurkotua.**
- > Neurrira **egindako produktuak eta zerbitzuak.**
- > **Aholkularitza.** Enpresa-txostenak, dirulaguntzak, ikastaroak ...
- > **Informazio eguneratua.** Eguneroko prentsa, azken albisteak, burtsa, ...
- > **Astialdia.** Bidaiak, zinerako sarrerak, mugikorrek birkargatzea ...
- > Eta, jakina, **Kutxanet-erako zuzeneko sarbidea.**



FARMAZIA Oñatiko Juldain botikan, elikadura jokaeren nahasteen gaineko eskuorriak banatzen dituzte, eta baita horrelakoak ez gertatzeko neurriak hartu ere. MIREIA BIKUÑA

ALARMA SEINALEAK

NERBIO ANOREXIA

Gutxiago jan, jateari utzi eta pisua neurri gabe galtzea

- > Gutxiago jan nahi izatea.
- > Pisu galera azkarra.
- > Gizen egoteari izua izatea.
- > Mahaian ezohiko gauzak egitea.
- > Elikadurarekin zerikusia duten gaien gaineko interes obsesiboa.
- > Bat-bateko umore aldaketak.
- > Argala egon arren, norbere burua gizen ikustea.
- > Uneoro pisatzea.
- > Bakarrik jateko nahia.
- > Laxante eta diuretikoak hartzea.
- > Ariketa fisiko gehiegi egitea.
- > Hilerokoan irregulartasunak.
- > Botaka eragitea noizean behin.

NERBIO BULIMIA

Betekadak, botaka egitea eta laxanteak gehiegikeriaz hartzea

- > Gorputzaren gehiegizko kezka.
- > Jan ondoren, botaka eragitea.
- > Etengabe, kontrolik gabeko dietak hasia.
- > Laxante eta diuretikoak hartzea.

JATE KONPULTSIBOA

Gehiegi jan eta pisua irabaztea

- > Antsietatea jaten lasaitzen dute.
- > Gehiegizko pisua izatea.
- > Norbere irudiarekin gustura ez egotea.
- > Norbere elikadura portaerekin gustura ez egotea.

OSASUNA > ELIKADURA JOKAEREN NAHASTEAK

Farmazietan, osasuna moda eta estetikaren aurretik saltzen da

Gurean gehien detektatzen den elikadura jokaeren nahastea bulimia da

Diuretiko eta laxanteak gehiegi hartzea edo maiz pisatzea kezkatzeko seinale dira

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Norbere gorputzaren itxura eta pisuarekiko gehiegizko ardurak elikadura jokaeren nahastea ekar dezake. Garaiz detektatu ezean, gaitz larriak izan daitezke. Hori dela eta, Gipuzkoako farmaziek elikadura desoreken gaineko kanpaina abiatu dute, Euskadiko Anorexia eta Bulimiaren Aurkako Elkar-teraren (ACABE) laguntzaz.

Diuretikoak, laxanteak edo beste botikak argaltzeko asmoz gehiegi hartzea edo maiz pisatzea kezkatzeko seinale dira. Beraz, elikadura desoreken gaineko infor-

mazioa zabaltzea da kanpainen helburua. Debagoieneko ACABEren bulegoan dihardu lanean Agurne Juldainek, eta esan digu Arrasate bertako eta ibarreko jende gutxi joaten dela, kanpoko bulegoetara jotzen dutela. "Gurean gehien detektatzen dena bulimia da, eta emakumeetan, batez ere. Adinari dagokionez, 30 urte ingurukoak dira gehienak", diosku.

BOTIKARIAK HEZI

Gaixoetatik gertuen egon daitezkeenetariko batzuk farmazeutikoak dira, desorekak izan ditza-

keten pertsonak eta familiakoak laguntzeko egokiak. Horretarako, ikastaroak egin dituzte ACABEko psikologo eta elikadura adituekin, bulimia eta anorexiaren seinale kezkagarriak jakiteko.


Agurne Juldainek azaldu digu zer lortu nahi duten kanpainenekin: "Farmaziek salmenta arduratsua egitea eta osasuna saltzea nahi dugu. Argi utzi nahi dugu farmaziek ez dutela estetika eta moda saltzen, osasuna baizik. Orain arte, oso erraz eskura zitezkeen errezetarik gabe laxanteak, diuretikoak... farmazietan. Gehienetan, botikak erostera, farmazia berera jotzen dugu, eta nolabaiteko konfiantza lor daiteke botikariarekin. Konfiantza horretaz balia daitezke adituak arazoa izan dezakeenari beste neurri batzuk gomendatzeko, edo diuretiko zein laxanteak har ez ditzan esateko".

Lorea Juldain botikari oñatiar-rrak esan digu farmazian dagoen urteetan apenas sumatu duela kasuren bat. "Gehienbat, etortzen dira argaltzeko produktuen bila

pare bat kilo galdu nahi dutenak, bikini operazioa egiten dihardutenak. Laxante gogorrak ere telebistan iragartzen dituzte; beraz, salgai dauzkagun neurrian ezin dizkiogu bezeroari ukatu. Ikusiko bagenu norbait sarritan etortzen dela horrelako produktuen bila eta, gainera, pisu asko galtzen ari dela, modu bakarra berarekin hitz egitea litzateke".

GOMENDIOAK

ACABEtik, hainbat gomendio jaso dituzte botikariekin. "Farmaziako pisuak lehen esaten zuen pisu idealala zein zen, kontuan hartu gabe adina, altuera... beraz, horrelako aparailurik ez izatea gomendatu digute. Orain, gorputz masaren indizea ematen duena daukagu. Erakusleihoa ipintzerakoan ere, arreta berezia jarri behar dugu: horrelako produktuei ez zaie aparteko protagonismo eman behar. Bestalde, mota honetako produktuak saltzean, beti esaten diegu bezeroei ez direla miragarriak, eta jatekoa zaintzea eta kirola egitea ezinbestekoak direla".



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa



Telleria 23, D5 pabilioia
Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com



TURISMOA > ASTE SANTUKO OPORRAK

Ordutegi bereziak izango dituzte turismo bulegoek Aste Santuan

Bost gune egongo dira bisitaria informatzeko: Eskoriatzan, Leintz Gatzagan, Bergaran, Oñati herrian eta Arantzazun

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Debagoieneko turismo bulegoek eta museoek ordutegi berezia antolatu dute Aste Santuko jaiegunetarako, eta herriak bertu daude dagoeneko bisitariak hartzeko. Hala, bost informazio eta bisita gune izango dira: Eskoriatzan, Ibarraundi museoa; Leintz Gatzagan, gatz museoa eta Labidea denda; Bergaran, turismo bulegoa; eta Oñatin, turismo bulegoa eta Arantzazu-

ko informazio gunea, Mankomunitatearena. Guztiak egongo dira zabalik jaiegunetan -apirilaren 1a, 5a, 6a, 8a, 9a eta 15a-, eta herri horietan guztietan izango da bisita gidatuak egiteko aukera.

EGUBAKOITZETIK DOMEKARA

Izan ere, dagoeneko hasi dira bisita gidatuok, nahiz eta oraindik bisitari gehienak etortzeko egon: "Mugimendu handieneko egunak Egubakoitz Santua, zapatua eta Pazko domeka dira. Eguz Santua laneguna da leku askotan, eta astelehena ere bai; horregatik, eguz horietan jende gutxiago dator", diote Oñatiko turismo bulegoko arduradunek.

Aurten ere, batik bat, Euskal Herriko bisitariak espero dituzte, eta gurean ohiko turista diren katalan eta madrildarrak ere.



BISITA GIDATUAK Dagoeneko hasi dira bisita gidatuak ibarrean; argazkian, zapatuko bat Oñatin.

JOSETXO ARANTZABAL

IBARRETIK KANARIETARA

Debagoienar asko kanpora joango dira Aste Santuan, eta, urteik urtera, erresebak goizago egiteko joera dago: urrian edo azaroan hasten dira batzuk, Eroski bidaia agentziako Idoia Altunak dioskunez.

"Aurten, Kanariar Uharteak oso ondo saldu dira", dio Altunak; "Espainiako kosta urterokoa da, baina gero eta gutxiago saltzen da". Batik bat, familiak joaten dira hondartzara oporretan.

Turismo bulegoen ordutegiak

HERRIA	NOIZ	GOIZA	ARRATSALDEA
Eskoriatza (Ibarraundi)	Jaiegunak	12:00-14:00	17:00-20:00
	Zapatuak	--	17:00-20:00
Leintz Gatzaga	Jaiegunak eta asteburuak	10:00-14:00	17:30-21:00
Labidea denda	Jaiegunak	10:00-14:00	--
Bergara	Apirilak 1, 8 eta 9	11:30-14:30	--
	Gainerako egunak	10:30-14:00	16:30-19:30
Oñati	Zapatuak	10:00-14:00	16:30-18:30
	Apirilak 1, 5, 6, 8, 9 eta 15	10:00-14:00	--
Arantzazuko Santutegia	Egunero	10:00-14:00	15:30-18:30

AISIALDIA > BIZIKLETA ALOKAIRUA GARAION

Bizikleta errentan har daiteke Garaioako parkean aste bukaera eta jaiegun guztietan

Aste Santuko oporretan Garaioara joaten direnek bizikleta maileguan hartzeko aukera izango dute, 1, 2 edo 5 euroko prezioan

L.K. > BERGARA

Garaioako parkera joateko aprobetxatuko dituzte Aste Santuko oporrek debagoienar askok. Hango giroaz eta bainuaz gozatzaz gain, beste aukera bat ere izango dute bisitariak: bizikletan paseatzea, hain zuzen ere.

Izan ere, Arabako Foru Aldundiak bizikletak errentan emateko zerbitzua ipini du Garaioako parkean. Ekainaren 15era bitartean, aste bukaera eta jaiegunetan egongo da zerbitzu hori, 09:00etatik 15:00etara; eguz horretatik irailaren 2ra bitarte-

an, berriz, egunero, 11:00etatik 21:00etara bitartean. Adin txiki-koek euro bat ordaindu behar dute; helduek, 2; eta familia taldeek, 5. Denetara, 57 mendiko bizikleta daude, zazpi ume eta gatzetxoendako.

GEHIENAK, HELDUAK

Iaz, 1.918 mailegu egon ziren Garaion; hartzaileen %64 helduek ziren. Bestetik, erabiltzaileen %84 EAeko biztanleak ziren, eta %52, arabarrak.

> HAUTESKUNDEAK

Iñaki Galdos ahaldun nagusi izateko hautagai moduan aurkeztu du ofizialki Eusko Alkartasunak

Iñaki Galdos oñatiarra joan den egubakoitzean aurkeztu zuen bere alderdiak, Eusko Alkartasunak, Gipuzkoan alderdi horretako ahaldun nagusi izateko hautagai moduan. EAko Zuzendaritza Nazionalak onespina eman zion Galdosi ekitaldi baten.

Ekitaldi berean, Batzar Nagusietako presidente izateko hautagaiari ere oniritzia eman zion EAk. Bergarako Udaleko langile Juan Inazio Galdos da hori. Zegamako alkate izan da azken bi legegaldietan.



Iñaki Galdos.

GOIENKARIA

Aretz

Plater konbinatuak • Ogitaratekoak • Hanburgesak
Pizzak • Paellak eramateko
Zeliakoentzako ogitaratekoak

Markole 5 • Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAK



ELIZA > ARANTZAZURA ERROMESALDIA

Sei mila lagunetik gora joan ziren Arantzazura erromes

Aurten, berezitasun moduan, Donostiako Gotzaindegiak antolatuta, gurean bizi diren etorkin batzuk etorri dira igoyerara

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

Gipuzkoa osoko sei mila fededunek erantzun zioten zapatuan Donostiako Gotzaindegiak erromesaldira egindako deiarri, eta Oñatitik Arantzazuko Santutegiraino igo ziren, urtero Erramu Domeka bezperan egiten den moduan. Igo gainera eta zabaldu begirada leloa azaltzen zuen pankartaren atzetik joan ziren, Joan Maria Uriarte Donostiako gotzaina buru zutela. Aurrealdean, Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkarate ere bazegoen.

Berezitasun batzuk izan ditu aurtengo erromesaldiak: hala, adibidez, Donostiako Gotzaindegiak antolatuta, hiriburuan bizi diren etorkin batzuk etorri ziren autobusez igoyerarako, baita kate-sira doazen ume talde bat ere.



GOTZAINA Joan Maria Uriarte, erromesekin berbetan.

JOSETXO ARANTZABAL

EKITALDI SINBOLIKOA

Ordutegia zorrotz bete zen: 09:30ean, Oñatiko parrokiako kanpaien hotsarekin batera, abiatu zen taldea, eta 12:50erako, santutegiko inguruak berriro lasai zeuden, jendea etxera bueltan.

Ekintza sinbolikoa egin zuten santutegi parean: bi gaztek eliza gainera eskalatu zuten, eta era-

bili zituzten sokeek esanahi berezia zuten: "Eurak sokeek sostengatu zituzten bezala, gizartea Ebanjelioak sostengatzen du orain", horrelaxe azaldu digu Iñaki Beristain Arantzazuko frantziskotarrak.

Gotzainak berba batzuk egin zituen ere, eta "bakea gero eta gertuago" ikusten duela esan zuen.

ELKARTASUNA > SAHARA

Eskualdeko hogeit lagun Saharara joango dira etzi

Udan umea hartu duten familiak dira, batik bat, doazenak; hala, aukera dute umea bere bizilekuan bisitatzeko

Debagoieneko familiak Aaiun, Asmara eta 27 de Febrero kanpalekuetan egongo dira.

Bestalde, bisitari gehien Arrasatetik joango dira: 10 pertsona, hain zuzen ere. Bergaratik, Eskoriatzatik, Aretxabaleatik eta Oñatitik ere badoaz familia batzuk.

HANGO PREMIAK IKUSI

Sahararekiko Nubi elkartasun taldeko arduradun Agurne Juldain bost aldiz izan da Saharan, eta orain ere badoa. Bere esanetan, bisitaldiak badu beste helburu bat: "Han dituzten beharrak bertatik bertara ikusten ditugu, eta bueltan, horien gainean lan egiten dugu". Oraingo bidaian, adibidez, ospitale-rako hainbat botika eramango dituzte. Hango eskola zelan dagoen ere ikusiko dute.

Urtero bezala, oraingo udan ere, Saharako hainbat ume ekarriko dituzte ibarrera hemengo elkartasun taldeek, eta horiek hartzeko familien premia dute oraindik elkarrekin.

L.K. > ARRASATE

Debagoieneko hogeit lagun Saharara joango dira bisita egitera. Etzi, eguaztena, abiatuko dira, eta batzuk egubakoitzera arte, hilak 9, beste batzuk zapatuta arte izango dira han.

Euskal Herri osotik joango den 252 pertsonetako batzuk dira. Urtero, uda partean ume sahararrak etxean hartzen dituzten familiendako bi bidaia antolatzen dituzte: bata abenduan, eta bestea orain, Aste Santuan. Hortaz, familiek eurek hartu duten umea bere bizilekuan, bere familiarekin... ezagutzeko edo berriro bisitatzeko aukera izango dute.

POLITIKA > EUSKARIA FUNDAZIOA

Ibarrekoen babesak Maltzagako Aldarriari

Debagoiendarrak izan ziren zapatuan Euskaria Fundazioak egin zuen ekitaldian, eta baita Aldarriaren babesleen artean ere

L.K. > BERGARA

Debagoiendarrak daude Euskaria Fundazioari eta bere Maltzagako Aldarriari babesak ematen, eta zapatuan Maltzagan fundazioak Telesforo Monzoni egin zion omenaldian ere izan ziren; adibidez, Jose Luis Elkoro Telesforo Monzon Fundazioko presidente eta Batasuneko kidea, edo Juan Martin Elempuru Aralarko kidea izan ziren Maltzagan.

Elempuruk dioenez, ekitaldiak balio sinbolikoa izan zuen: "Monzonek esaten zuen abertzale guztiok Maltzagara, bidegurutzera, batera joan behar genuela; Euskaria Fundazioak ere, hitz horiek aintzat hartuta, alderdi abertzaleoi dei egiten die".

SINADURAK BATZEN

Euskaria Fundazioa talde abertzale eta euskaltzale guztion arte-

ko elkarlana bultzatzen duen talde independentea da. Orain, Maltzagako Aldarriarendako ahalik eta sinadura gehien batzea da bere helburua; orain arte, 437 ditu. Aldarri horrek burujabetzaren aldeko prozesua berpiztea eskatzen du, Euskal Herriak bizi duen "gatazka politikoa eta kulturala" gainditzeko; besteak beste, "gizabanako zein taldeko eskubide guztien errespetua" eta Euskal Herriko eragile guztien artean "elkarrizketa eta negoziazio prozesua" eskatzen dituzte.

Agiria irakurri eta sinatzeko aukera dago www.euskaria.eu euren webgunean.



EKITALDIA Maltzagako Aldarriaren babesleak, zapatuko ekitaldian.

ARGAZKI PRESS



Finantzaketa kuota personalizatua

Servimasa

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Haitz-Iturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Hainbat emakume baserriarrek hitzez elkarrekin sortu zuten, besteak beste, euren eguneroko kezketa jarduteko. Bikote bizi-tza eta bakardadea dira horietako arazo batzuk. Kezka horiek zabaltzeko eta euren ingurune-tik kanpo azaltzeko asmoz, hitzaldia egin zuten egunean Berga-rako kultura etxean, eta familia kontuetan aditua den psikologo bat izan zuten hizlari.

Gloria Martin > Familia terapeuta

"Baserriak aurrera egingo du, baina bakoitzaren espazioak argi mugatuta"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Bakardadeaz jardun zuten Berga-rako hitzaldian, eta baserrietako emakumeek bizi duten bakardadea ere izan zuten hizpide. Familia tera-pian aditua da Gloria Martin psiko-logoa, eta baserrietako emakume- ez jardun du gurekin.

Zein da emakume baserriar- ren egoera?

Bakardade sentimendua dute askotan. Kanpotik sartzen dira dagoeneko egituratuta dagoen familia batean; jokabide-eredu eta bizi-ikuskeraz zehatzak dituzte. Emakumea egin dagoen familia berrira egokitu behar da.

Zein eginkizun du gaur egun emakumeak baserrian?

Askotan, baserriko maioraz-koak, gizonak, etxetik kanpo egi- ten du lan. Beraz, emakumeak, nekazaritza ustiapena dagoen kasuetan, baserriko lanetan jar- dun behar du; baita sukaldian ere. Kontuan hartu behar da sukald- ean bi emakume daudela, horie- tako bat jabea. Lapiko artean sor- tzen dira lehen haserreak. Inkon- tziienteki, lehia, norgehiagoka sortzen da bi emakumeen artean; eta, tartean, gizona dago, baten semea eta bestearen senarra. Ez du nahikoa indar arazoari aurre egiteko, bien artean baitago. "Hau emakumeen kontua da" esanez, arazoa saihesten saiatzen da.

Zein dira emakumeen arazoak baserrian?

Emakume gazte bat baserrian sartzen denean, gutxietsi egiten da, ez diote erabakietan parte hartzen uzten. Horrek etxea berea ez balitz bezala sentiarazten du. Senarra baino ez da berea eta, gainera, ez dauka alboan. Emakumeek asko- tan esaten dute senarrek ez dituz- tela defendatzen baserriko fami- liaren aurrean. Horrek bakarda- de sentimendua sortzen die. Batzuetan, koinatek ere zalantzan jartzen dute emakume horrek baserrian duen papera. Hauek uste dute, baserriarekin geratu behar bada, gurasoen zaintza ere bera arduratu behar dela. Horre- la sortzen dira familia arazoak, eta baita bikote arazoak ere.

Nola egin aurre arazo horiei?

Kasu askotan, bakardadean murgiltzen dira. Badira talde tera- piak emakume baserriarrendako, eta etortzen direnek aldaketak egiten dituzte. Baina gatazkak ere sortzen dira, aldaketa guztiek kri- siak ekartzen dituztelako.



Emakume baserriarrek terapiak egiten ditu Gloria Martin psikologoak.

I.A.

Nolako aldaketak izaten dira nabarmenenak?

Esaterako, seme-alabak esko- lara eraman ostean, kafe bat har- tzeraz geratzen dira lagunekin noizean behin. Bada, amaginarre- bari hori ez zaio batere ondo iru- dituko. Bere ustez, emakumeak etxean egon behar luke. Bilerak ere ez zaizkie gustatzen; are gutxiago, adituak joatea emaku- meok ditugun eskubideei buruz hitz egitera. Horrelakoek eragi- ten dituzte krisiak, batzuetan, banatzeraino. Hala ere, banake- ta proposatzea zailagoa da base- rri giroan kalean baino.

Ikusten duzu biderik baserri- ko emakumearen bizimodua kalekoarekin berdintzeko?

Oraingoan, ez; baserrikoek ara- zo gehiago dituzte. Ustiapen bat dagoenean, baserrian negozio bat dago tarteko. Beraz, ezin da kaleko emakumearekin berdin- du. Banaketen kasuan, adibidez,

BAKARDADEA

"Egituratutako familia- ra egokitu behar da emakumea, eta bakarrik sentitzen da askotan"

LANA

"Emakumeak baserrian egiten duten lana ez da aintzat hartzen, hala egin behar dutela uste baita"

ETORKIZUNA

"Bizitza kalitateari dagokionez, aldaketak izan dira, eta gerora ere izango da baserriarrik"

kalean, behin erabakia hartuta- koan, aurrera egiten da; base- rrian, gehiago kostatzen da era- bakia hartzea. Izan ere, baserri- ra joan dira emakumeak nahi izan dutelako, baina ez dira ohar- tzen, senararekin ez ezik, fami- liarekin ere ezkondu direla, eta uneoro etxean dituztela, gainera, familiakoak. Behin baserrian sustraitu ostean, zailagoa da banaketa. Hala ere, orain, gutxi- nez, batzuek baserrikanpo ere lan egiten dute, eta horrek ara- zoak arintzen, behintzat, lagun- tzen die emakumeei.

Urteen joanean, sumatu duzu aldaketarik?

Aldaketa txiki batzuk, bai, baina oso motelak. Gaur egun baserrietan bizi diren emaku- meak, egunen batean, amagina- rreba izaten direnean, emakume- ak beste ikuspegi batetik ikusi- ko dituzte. Orain, ez dute sukaldia beste emakume batekin

partekatuta nahi. Semea etxean bizitzen geratzen bada ere, etxe- ra sartzeko bi ate daude, eta bai- ta bi sukalde ere. Beraz, aldake- ta nabarmenenak gerora etorri- ko dira. Baserria aurrera aterako dute, baina bakoitzaren espazio- ak argi eta garbi mugatuta.

Emakumeek ez ei dute baserri- ra ezkondu nahi.

Orain baserria dagoen moduan, askok ez dute nahi, ez badira eurak jabeak; hau da, neka- zaritza turismorako badute base- rria, edo bikoteak ustiatu behar badu... Batzuetan, bikoteak apur- tu egiten dira, mutilak baserri- ra joan nahi duelako, eta neskek, ez. Baserri- ra joateko, gustuko izan behar dira animaliak, baita ber- tako lana ere; batzuek, asteburu- rako gustukoa dute, baina egune- ro bizitzeko, ez.

Baloratzen da emakumeek baserrian egiten duten lana?

Hor dago koska. Baloratuta sentituko balira, ez legoke ara- zorik. Belarraz, ganadua jezteaz, animalietaz... arduratzen dira. Horrela egin behar dutela uste da, gainera; beraz, ez da aintzat har- tzen euren lana. Amaginarrebe- k bizitza gogorragoa bizi izan zuten, eta ez zaie gustatzen orain base- rrian bizi diren gazteak autoare- kin aurrera eta atzera ibiltzeko duten erraztasuna; afaria etxetik kanpo, batzarra...

Zer aldarrikatzen dute, beraz, emakume baserriarrek?

Espazioak mugatu ahal iza- tea, baina, era berean, baserria euren etxea dela sentitzea; bes- talde, oporrak izateko aukera edo eskubidea... Hau da, kaleko edozein emakume egiten duen bizimodua egitea eta zerbitzu publikoak baliatzea. Ezberdinta- sun bakarra litzateke batzuek dendan, bulegoan... lan egiten dutela, eta eurek, baserrian.

Baserrietan gero eta jende gutxiago bizi dela dirudi. Etor- kizunean ikusiko dugu emaku- me baserriarrik?

Baietz uste dut, baina beste modu baten. Bizitza kalitateari dagokionez, aldaketak gertatzen ari dira. Baserri asko nekazari- tza turismorako egokitu dituzte. Horrek ahalbidetzen dio emaku- meari etxe barruan lan egitea gus- tuko zerbitzetan. Gaur egun ere- duari jarraituko balitzaio, baserria jausi egingo litzateke pixkanaka.

oharrak eta deialdiak

ESKORIATZA

> Sagardotegira irteera antolatuta Aitzorrotz Kultur Elkarteak

Apirilaren 21ean egingo dute irteera, eta itzulera 22:00etan izango da. Txartelak dagoeneko salgai daude Inkernu tabernan. Autobusaren eta bazkariaren prezioa 35 euro da.

ANTZUOLA

> Elikaduraren gaineko ikastaroa KZgunean

Elikadura segurtasuna delako ikastaroa egingo dute apirilaren 19an, 17:00etatik 18:00etara. Dagoeneko eman daiteke izena.

ARETXABALETA

> Klown ikastaroa antolatuta Jaiki elkarteak

12 orduko ikastaro trinkoa izango da: apirilaren 21ean, egun osoz, eta 22an, goizez. Prezioa 35 euro da, 25 ikasle eta langabeen kasuan. Izena emateko, jo Aretxabaleta Azkena tabernara edo Arrasateko Aker Tatoo dendara apirilaren 18a baino lehen. 10 euroko fidantza utzi beharko da.

OÑATI

> Arantzazurako autobus zerbitzu berezia martxan dago

Berrikuntza nabarmenarekin dator zerbitzua: urte bukaera arte jarraituko du, iaz ez bezala. Domeka eta jaiegunetan egongo da, ordubetero, 07:30ean hasi eta 20:00ak arte.

Joan-etorriko txartela euro bat kostako da. Oñatin hiru geldialdi egingo ditu: Olakuan, Euskadiko etorbidean eta posta bulegoan.

ESKORIATZA

> 1957an eta 1958ko urtarri leta otsailean jaiotako en irteera

Udan, ekainaren 9an, egingo dute irteera Arratiara. Interesatuak honako telefonoetara dei dezakete: 619 21 97 53 edo 943 71 50 42.

DEBAGOIENA

> Aldundiaren udalekue-tako zozketan parte hartzeko epea zabalik dago

Zazpi eta 13 urte bitarteko neska-mutikoen emateko epea; 14 urtetik 17ra artekoen kasuan, berriz, apirilaren 19tik 26ra eman ahal izango da, gazte bulegoetan edo www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunean. Kampainaren berri ere horixe jaso daiteke.

BERGARA

> Kilometroak jaiaren aldeko margolan zozketan, 000062 zenbakiak jaso du saria

Kilometroak 07 jaiaren alde, Luis Laskurain bergararren margolan bat zozkatu zuten zapatuan, eta 000062 zenbakiaren jabea irabazi zuen. Berorrek apirilaren 16tik aurrera jaso ahal izango du saria Aranzadi Ikastolako San Martin plazako eraikineko idazkaritzan. Mujika dendan ikus daiteke margolana.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

DEBAGOIENA

> Elkarrekin webgunea lortzeko aukera dute KZgunean

Webgunea izateko aukera eman nahi diete KZguneei herrietako elkarteak. Web orria erabat doan lor dezakete elkarteak, eta bi hizkuntzatan –euskaraz eta gaztelaniaz– nahi beste informazio sartzeko aukera izango du elkarte bakoitzak. Informazio gehiagorako, jo norbere herriko KZgunera.

BERGARA

> 1927an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Apirilaren 14an, zapatua, batuko dira batera bazkaltzeko 27an jaiotakoek, Lasa jatetxean. 14:00etan hasiko da bazkaria. Izena emateko, 20 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutxako honako zenbakian: 3035 0009 18 0091115902. Apirilaren 10a da horretarako muga eguna.

BERGARA

> Eski irteera Aste Santuan Pol-Polen eskutik

Apirilaren 6tik 14ra bitartean, Alpeetara, Val Thorens-era, irteera antolatuta du Pol-Poleko eski sailak. Argibideak, 943 76 48 51 telefono zenbakian edo pol-pol.mendialdea@hotmail.com helbidean.

DEBAGOIENA

> Lankidetzaren ikastaroak udan, Hego Amerika eta Afrikako herrialdeetan

Bakerako Lankidetzaren Batzarrak (BLB) Hegoaldeko herrialdeetan lankidetzaren ikastaroak antolatuta ditu udarako, honako herrietan: Guatemala, Hondurasen, Marokon, Senegalen, Tunisian, eta abar. Argibideak, 94 444 32 07 telefonoan edo www.acpp.org helbidean.

OÑATI

> KZgunea itxita egongo da Aste Santuan

Oporrak direla eta, apirilaren 2tik 10era itxita egongo da.

DEBAGOIENA

> Egun aldaketa Puntu Berde Mugikorreko zerbitzuan

Oñatin eta Bergaran izango da aldaketa. Hain justu ere, apirilaren 7an, zapatua, pasatzeko da Puntu Berde Mugikorra esandako herrietatik, baina, Aste Santua tarteko, apirilaren 14ra atzeratu dute. Orduetgia eta lekua ohikoak izango dira.

etxeko leihotik



Oihane Agirre > GOITBko programazio zuzendaria

Zorionak: aita izango zara

Azken asteetan agertutako bi albiste azpimarratu nahi ditut zutabe honetan. Batetik, astebete dela, indarretan sartu zen aitatasun baimena hamabost egunera luzatzen duen Berdintasun Legea. Lehenago zeukaten hiru egunekin konparatuta, bada alderik! Lehenengo egunak oso bereziak izaten dira guraso berrientzat edo aurrez guraso direnentzat. Familiara kide berri bat dator, eta hasieratik elkar ezagutzeko funtsezkoa da. Amarekin duen kontaktua hurbilagoa da hasieratik, bereziki bularra ematen badio. Eta aita, non dago hasierako egun horietan?

Gainera, askotan, ama ere ahul sentitzen da, erditzea ez baita txantxetako kontua. Aldamenekoek ematen dioten laguntza inoiz ez da nahikoa. Ospitaleko egunetan, adrenalina goraino izaten da, eta nekea etxerako bueltan sumatzen da.

Aitatasun baimenarekin, hemendik aurrera hamabost eguneko baimena izango dute, ama zaintzeko, haurra zaintzeko... eta Mankomunitateak kaleratu berri duen *Zorionak: ama izango zara* liburua irakurri eta DVDa ikusteko. Benetan material bikaina, ez bakarrik amarentzat, baita aitarentzat ere!

> Hemendik sei urte barru, aitatasun baimena, gaur 15 eguneko baimena, lau astetako baimena dela diote.

Hala ere, nik neuk kontu hauetan atzeratuta goazela uste dut.

"Hemendik aurrera, 15 eguneko aitatasun baimena dago"

> 'Zorionak: ama izango zara' liburua eta DVDa Euskal Herriko beste eskualdeetara ere zabaltzeko asmoa dute. Bailaren egindako beste gauza asko bezala, material hau ere esportatu beharrekoa da.

debagoiendarrak kanpoan

Amaia Egoskozabal > Oñati

"Belgikako gazteek interes handia dute beste kulturak ezagutzeko"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Amaia Egoskozabal oñatiarrak sei urte daramatza Bruselan bizi izaten, Luk mutilarekin eta hiru urteko Danel semearekin.

Nola erabaki zenuen herria utzi eta Bruselara joatea?

Badira sei urte Bruselan bizi naizela. Bi urte lehenago, mutilarekin Dublinean egon nintzen. Handik, Oñatira joan ginen; ia urte bete egin genuen. Gero, motxilak hartu eta Indiara joan ginen. Europara bueltatzeko garaia heldu zenean, Lukek Belgikan geratzea proposatu zidan, eta gaur egun arte!

Gogorra izan zen hara joateko erabakia hartzea?

Erabakia samur hartu nuen; niretzako, gauza berriak ikaste-

ko aukera ederra zen eta, gainera, Luken motibazioak ondo ulertzen nituen.

Samur egokitu zinen horko bizimodura?

Hasierako hilabeteak gogorak egin zitzaizkidan; ez nuen ez frantsesez ez neerlandezaz egiten, beraz, ezinezkoa zitzaidan lana aurkitzea.

Gero, frantsesa nahiko samur ikasi nuen. Neerlandesarekin, berriz, oraindik hor nabil... baina beharrezkoa dut hizkuntza hau, Luken familiarengatik eta baita Danelengatik ere. Bestalde, bi herrien artean ezberdintasunak badaude: haiek gu baino hotzagoak dira, aleman tankera-koak. Baina, pentsamenduz, berriz, irekiagoak dira, gazteak batez ere. Interes handia dute.



GOIENKARIA

Oñatiar bat Bruselan

Europako Komisionan egiten du lan Egoskozabalek; kooperazio arloan, Afrikako herriekin, batez ere.

Orain, Aste Santua datorrela eta, Oñatira etorriko zara oporretan?

Ez, Aste Santu hauetan ikasi beharra daukat, eta ez gara Oñatira joango. Alde batetik, flamenko klaseak ditut eta, bestetik, Europako komisioan postu finko bat ateratzeko oposaketak gertatzen ari naiz.

Dena den, Danel jaio zenetik, sarriago joaten saiatzen gara: urtean hiru edo lau aldiz. Nire guraso eta anai-arrebak ere etortzen dira gu ikustera, beraz, ezin naiz keixatu.

Etxera etortzen zarenean, ez zaizu bertan geratzeko gogo sartzeko?

Horrenbeste denbora kanpoan igaro ondoren, norbera ohitu egiten da, eta ez zait hain gogo-

rra egitenh ona bueltatzea oporren ondoren; azken finean, hemen daukagu gure etxea, lagunak, lana...

Noski, familia eta lagunei agur esateak beti ematen dit pena, baina hori ezinbestekoa da... Egia esan, faltan gehien nabaritzen dudana jendea da, eta paisaia ere bai –mendiak!– eta argitasuna –lurralde grisa da Belgika!

Bisitara doanari, zein txoko ikustea gomendatzen diozu?

Gu Bruselan bizi garenaz, hemendik hasiko nintzateke: Grand Place, Sablon, Cinquantenaire. Gero, Brujas, noski; Venezia txikia, derrigorrezko bisita. Gante hiri gaztea da, festa giro-rako aproposa! Gainerakoan, kostaldeko herri batzuk. Garai egokia udaberria edo uda da.

kale inkesta

Aste Santuko oporretan, kanpora irtengo zara edo herrian geratuko zara?

Bettina Heras
Langilea
Oñati

Aurten, Lanzarotera joango gara; egia esan, beste urte batzuetan, nire herrira, Alacanterra, joan izan gara. Baina, aurten, eskaintza on bat hartu dugu eta kanpora aterako gara. Garaiz ibili gara.

Rosita Markuleta
Langilea
Oñati

Bai, gu beti Oñatitik kanpora joaten gara; gizona kanpokoa daukat, eta haren herrira joaten gara egun horietan. Egia esan, jende asko ateratzen da, eta errepidean arazoak izaten dira.

Rosario Agirre
Langilea
Oñati

Oñatin geratuko gara Aste Santuan; behar bada, elizak antolatzen dituen ekintza batzuetan parte hartuko dut. Herritar gehienak kanpora ateratzen dira; bestalde, turista asko ikusten da herriko kaleetan.

Ana Maria Mesa
Langilea
Oñati

Aurten, lan egitea egokitu zait; beraz, ez gara inora joango. Behar bada, egun solteren baten, irteeraren bat egingo dugu. Egia esan, gurago dut etxean geratu, eta beste edozein aste bukatzeratan irtetea.

zorroztailea



Elena Laka

Ekin ta saldu zazu

“Debagoiengan (...) aisialdirako eskaintzak hobetu eta turismoa bultzatu daitezke eta elkarrekin lan egiteko perspektiba berreskuratzea ezinbestekoa da. Tranbiarekin pauso garrantzitsua eman daiteke (...). Debagoiena EAeko laugarren hiria izaten lagunduko digu.”

Koldo Azkoitia
GOIENKARIA > 2007-03-30



Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak zioen herritarrek gero eta gehiago exigitzen dutela. Esplicitzen zuen, exijitu bai, baina erantzun ere neurri berean egin behar zutela, eta horretan eskas zebilela herritarra. Adierazpenok egin zituen, herritarren kopuruaren jatsieraren harira, herritarrek zertan aldatu diren galdetu ziotenean. Horren ondoren, poztu egin nau Gipuzkoako Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatuari irakurtzea biztanleriaren beherakada motibazioarekin eta aisialdiarekin lotuta dagoela. Alegia, beherakadak ez daukala zerikusirik herritarrok erakundeei eskatzen diogun demaskeriarekin, erakundeek guregatik egiten duten eskaskeriarekin.

Koldo Azkoitia interes handiz zabaltzen saiatzen denez eta herritarrok ere ikusi ahal izan dugunez, Diputazioak lan, diru eta ordu asko inbertitu ditu bukatzean dagoen legegintzaldi honetan Debagoiengan. Azpiegituretan eta zerbitzuetan igarri da hori: garraio-bideak, errepideak, ekipamendua... Bi adarretan oinarritzen da inbertsio hau: alde batetik, diputatuak agertutako asmoan, hots, EAeko laugarren hiria izateko asmo horretan. Baina baita ere urteetako bazterketa betetzeko saiakeran. Debagoiengan industrialdeak baino sustatzen ez ziren bitartean, gainerako eskualdeetan ikaragarriko ahaleginak egin dira beste hainbat arlotan. Garraio aldetik desegituratutako eskualde bat, kultur ekipamendua desagertzen ikusi dituen... Ez da jendearen exigentzia maila herritarrek beste eskualde batzuetan bizitzera eraman dituen.

Legegintzaldi honetan Diputatu Nagusia hamaika aldiz etorri da bailarara. Ez inauguratzen edo obrak ikuskatzera bakarrik: seme-alaben onerako aginduak ematen dituen aita zuzenak moduan, iruditu zaionean errietan ere egin du. Eta bisita guztietan, argazkia ateratu du. Diputazioaren asmoa Debagoiengan lan egitea izan baita, baina baita hori saltzea ere. Herritarrok kontura gaitzen zenbat lan egiten duten guregatik eta guretzako, zenbat arreta merezi diogun Donostiako urruneko osabari. Politikarien lana bikoitza baita: ekin lehenik, saldu gero. Eta ez beti orden horretan.

"Diputazioak lan, diru eta ordu asko inbertitu ditu Debagoiengan"

"Diputazioaren asmoa lanak egitea izan da, baina baita hori saltzea ere"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Bidegurutzean, argirik ez

Irakurle batek deitu digu esanez, Arrasateko Eskola Politeknikora autoz joan eta bueltan GI-627 errepiderantz edo Bedoñarantz hartzen den bidegurutzean, batere argirik ez dagoela sumatu zuela: "Bidea eta tokia ezagutzen gero, hainbestean; baina, bestela, saihebidera nola joan asmatzeko, gaizki dago. Ez legoke gaizki inguru horretan farolaren bat ipintzea". Oro har, saihebidetarako horretan argi gutxi dagoela ere esan digu beste irakurle batek.

OÑATI

> Elurtean, Errekalde azkena

Errekaldeko bizilagun batek bere haserrea azalduz deitu digu. Bere esanetan, "azken elurtean, kaleetatik elurra kentzeko makinak gure auzora bisita egiterako, denboraldia pasa zen: azkenak izan ginen! Gainera, zuhaitzak ere erori ziren, eta haiek moztu eta erretiratu ere berandu egin zituzten". Ez ei da elurtean horrelakoak gertatzen diren lehen aldia, eta kexu dira Errekaldekoak.

ARRASATE

> Nafarroa etorbide osteko aparkalekuan, zulo handiak

Musika eskola aldameneko aparkalekua negargarri dagoela esateko deitu digu irakurle batek: "Hesiak ipini zituzten arren, jendeak autoak lagatzen ditu bertan. Sekulako zuloak daude, autoa hondatzeko ere. Aparkatzea debekatuta badago, norbaitek zaindu behar du ingurua; bestela, zuloak konpondu beharko lituzkete".

usteak uste

Mireia Bikuña

Aste Santuko oporrek eta turismoa

Azkenean iritsi da Aste Santua; bi egun lan egin, eta oporretara goaz. Hortaz, gehienok hasi gara maletak egiten. Halaber, beste batzuek maletak egingo dituzte, baina gure ibarra ezagutzera etortzeko.

Gure ibarrean turismoarekin gertatzen dena bitxia da; oso bitxia. Oporraldi luzeak daudenean, debagoiendar gehienok kanpora joateko joera izaten dugu: Nafarroara, Kantabriara, Mediterraneo aldera edo Kanarietara. Baina, lagun asko dira gure ibarrera turismoa egitera etortzen direnak; madrildarrak eta kataluniarak, gehienbat.

Ostatu gehienak gainezka egongo dira eguztinetik aurrera. Ea ba eguraldiak hobera egiten duen.

Ondo ibili oporretan!

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña Oinarriko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Miren Agirre Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako
Foru AldundiaEUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako SailburuordetzaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13 Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Telelaguntzaren inguruko hitzarmena sinatu dute > 10



> **OÑATI**
Udaleku irekiak azpikontratatu egingo ditu aurten Udalak > 12



> **ESKORIATZA**
Sei milioi eta erdiko aurrekontua bozkatuko du gaur Udalbatzak > 13



> **ARAMAIO**
Txirritolaren ipuin lehiaketako zortzi sariak banatu dituzte > 14

BERGARA > ERRAMU ZAPATUKO FERIA

Erramu Zapatuko ferian, jende mordoa batu zen eguzkipean

EGUZKIA

Beste behin ere, eguraldiak lagundu egin zuen Erramu Zapatuan giroa sortzen

DENETARIK

Abelburuak, Euskal Labeleko produktuak, makinaria eta artisautza bildu ziren

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Aurreko asteko eguraldia ikusita, Erramu Zapatua euripean emango zuten beldur zen jendea. Barikuan bertan, ia atertu barik egon zen egun guztian. Baina zapatuan jaiki, eta berri on bat: eguzkiak, lotsati xamar bada ere, agerraldia egin zuen.

ANIMALIAK ETA JATEKOA

Erramu Zapatuko egunez, urtero-urtero ez bada ere, askotan eguraldi ona egiten du. Eta aurten ere, halaxe izan da. Hori horrela, jende mordoa ibili zen Bergarako kaleetan barrena, feria ikusteko. Abelburuen erakusketa, Euskal Labeleko produktuak, makinaria eta artisautzako produktu asko batzen zituzten postuak jarri zituzten beste behin ere herriko hainbat txokotan.

Animaliak eta janaria elkarrekin dauden feriak gustuko ditugu euskaldunok, eta zapatuan Bergaran antolatu zenak bi

ezaugarriak zituen. Animaliak dira jende gehien erakartzen dituztenak. Bergarara etorritakoak ikusita, bat baino gehiago harrituta geratzea ez da arraroa. Aranzadi Ikastolako patioan bildu zituzten animalioak. Batzuk, euskaldunak: azeriak, behiak, pottokak, oilarrak. Beste batzuk, kanpotik etorritakoak: llama, esaterako. Kontuz ibili behar txisturik ez botatzeko aurpegira!

Baina denen artean begirada gehien bildu zituena *Robinson* abelburua izan zen, dudu barik. Akitaniako blonda ikaragarriak 1.700 kilo zituen.

Jatekoa ere ez da ahaztu behar. Goierriko talo egileek frontoi aurrean zuten euren postua, eta han ere ez zen jende gutxi gerturatu. Animaliak eta gainerako postuak ikusi ostean, tripa bete eta indarrak hartu behar ziren, eguna ondo jarraitzeko.

ETA EGUNA AMAITZEKO...

Jarduneko trikitilariak aritu ziren kalerik kale giroa alaitzen. Baina soinua eurek bakarrik ez zuten jarri. Zantantzarrak ere han ibili ziren, batetik bestera.

Arratsaldean, 17:30ean, umeentzako jokoak antolatu zituzten. San Martin Agirre plazan aritu ziren olgetan guztiak.

Eguna amaitzeko, bertsozaleentzako derrigorrezko hitzordua: bertsolari jaialdia udal pilotalekuan. Andoni Egaña, Xabier Paya, Igor Elortza, Unai Iturriaga, Jon Maia eta Maialen Lujanbio aritu ziren oholtza gainean. Gai-jartzailea Bergarako Bertsola Eskola izan zen; gaiak emateaz arduratu zena, Enaitz Alustiza.



DENETARIKO ESKAINTZA Goitik behera, ganadu azoka, artisautza postu bat, eta txorimalo erakusketa.

JOSETXO ARANTZABAL

13. txorimalo lehiaketan, 28 parte-hartzaile

Jardun elkarteak, beste behin ere, txorimalo lehiaketa antolatu du Erramu Zapatu egunez. 13. edizioa izan da aurtengoa, eta 28 taldek parte hartu dute. Adinaren arabera, hiru taldetan banatu zituzten, sariak emateko orduan. Horrela, hamabi urtetik beherako hiru irabazleak Gasteizera joango dira patinatzerara: Gaupaseroak, Pailazokeriak eta Sorginak taldekoak. 12 eta 65 urte bitartekoen artean, bi sari banatu zituzten: Barazkijaleek lortu zuten lehengo saria –90 euro–, eta Txik taldeak, bigarrena –60 euro. 65 urtetik aurrerakoan artean, zazpigarrenez, Mizpirualde egoitzakoek irabazi zuten. Gainera, *Jarduntxio* aurkeztu zuten Jardun elkarteok: taldearen maskota.

ZERBITZUAK > TELELAGUNTZA ZERBITZUA

Arrasaten ez dute itxaron zerrendarik telelaguntza zerbitzua lortzeko

Astelehenean, telelaguntza zerbitzuaren gainean Diputazioarekin hitzarmena sinatzea onartu zuen udalbatzarrak

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko Gizarte Zerbitzuek pertsona nagusiei eskaintzen dizkieten zerbitzuen artean, telelaguntza zerbitzua ere badu Udalak. Horren helburua da arrisku egoeran dauden, mendekotasuna duten edo zailtasunak dituzten pertsonen euren etxeetan bizitzeko bidea erraztea, ez dezaten izan egoitzara joan beharra. Telelaguntzaren bitartez, pertsona horiei berehalako larrialdi zerbitzua eskaintzen zaie, izenak dioten moduan, telefonoaren bitartez.

Telefonoaren beste aldean, arrasatear horien larrialdiak artatzeko, atenditzeko, bereziki prestatuta dauden profesionalak daude, egunean 24 orduan eta urteko egun guztietan.

Osasunarekin lotutako larrialdiei erantzuteaz gainera, profesional horiek etxean gerta litezkeen bestelako larrialdiak ere artatzen dituzte: suteren bat, lapurretak, e.a.


DIPUTAZIOAREN ESKUETAN

Bada, udalbatzarrak onartu berri du telelaguntza zerbitzua, aurreantzean, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualdatzea; emandako azalpenen arabera, zerbitzuaren "eraginkortasuna" indartzeko helburuarekin.

Edozelan ere, eskualdatze horrek erabiltzailearengan eraginik ez duela izango jakinarazi du Udaleko Zerbitzu sailak.

BALDINTZAK

Bestetik, zerbitzuaren gaineko araudia bera onartu du udalbatzarrak. Besteak beste, hor finkatu dituzte pertsona batek bete beharreko baldintzak telelaguntza zerbitzua eskuratzeko. Sei baldintza dira; batzuk aipatzearen: Arrasaten erroldatuta egon behar da, nahiz eta salbuespen batzuk aurreikusten diren; etxean telefono linea izan, eta zenbait datu pertsonal Diputazioaren esku uzteko baimena eman behar du.



TELELAGUNTZA Telefonoaren bitartez, profesionalak beharra dutenen larrialdiei erantzuten diete.

GOIENKARIA

LEHENTASUNAK

Hori horrela, zerbitzu hori ezin dute eskatu, esaterako, telefono linea behar bezala erabiltzeko gaitasunik ez duten pertsonak.

Zerbitzua eskuratzeko lehentasuna izango dute hainbatek: bakarrik bizi direnek, 65 urtetik gorako beste pertsonaren batekin bizi direnek edo 65 urtetik behe-

rakoekin bizi arren, denbora luzean bakarrik egoten direnek.

Adinari dagokionez, 85 urtetik gorakoek izango dute lehentasuna, 80-84 urtekoek gero, 75-79 urtekoak datoz ondoren, eta azkeneko daude 65-74 urtekoak. Lehentasuna izango dute ere mendekotasuna edo zailtasunak dituzten pertsonak zaintzen dituz-

tenek, eta baita ere baserri giroan bizi direnek. Dena den, Gizarte sailak jakinarazi du ez dagoela herrian itxaron zerrendarik.

Erabiltzaileen gaineko datuei dagokienez, iaz, 119 herritarrek erabili zuten zerbitzu hori. Bestalde, Arrasaten hamar urte baino gehiago daramatza Udalak zerbitzu hori ematen.

EUSKARA > EUSKARA ELKARTEEN BATZAR OROKORRAK

ARKO desagertu egin da, eta AED elkarteak hartu du haren lekukoa

50 lagun inguruk parte hartu zuen AED, ARKO, Ekin Emakumeak eta Txatxilipurdi elkarten batzar orokorrean, joan den egunean

U.M. > ARRASATE

Batzar orokorra lehen diharduten AED, Ekin Emakumeak, Txatxilipurdi eta ARKO elkarteetako bazkide, ordezkari eta langileek, joan den egunean.

Aurreikusitako gai zerrendan, puntuetako bat zen ARKO, Arrasate Komunikabideak, elkarte desagertzea.

Desagertze horrek, besteak beste, bi puntutan eragina izango du aurreantzean.

HARREMANAK ESTUTU

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak idazkari orokor Itxaro Artolak jakinarazi duen moduan, batetik, ARKOk Goiena Komunikazio Zerbitzuak koo-

perdi elkarteek ere izango dute presentzia Goiena kooperatiban.

URTEKO KONTUAK

Puntu horrez gainera, bestelakoak ere landu zituzten batzar orokorrean.

Hain zuzen ere, halakoetan ohi denez, lehen aipatutako hiru taldeek urteko deskargua egin zuten, hau da, diru kontuen zuri-keta eta iazko jardunaren gainekoak azaldu. Era berean, 2007rako aurreikusitako egitasmoen berri eman zuten, aurrekontua finkatu zuten eta, bestelakoan artean, elkarten bazkide kuota berbagai izan zuten.

Batzararen balorazio positiboa egin dute. 50 pertsona inguruk parte hartu zuen, eta "giro ona" izan zen.

ARKOKO PRESIDENTEAREN IRITZIA

"Albiste pozgarria da ARKO desagertzea"

ARKOren desagertzea "albiste pozgarria" dela adierazi dio GOITBri elkarteak presidente Aitor Orobengoak. Bere zeregina bete duelako desagertu dela gaineratu du: "ARKO aitzindaria izan da telebistan, kazetarigintzan..., hori erakutsi du gure bailarako prentsa eta telebista sortzerako orduan. Jakin, bagenekien, garai hartan, gure lana maila honetara iritsi eta gero amaitu egingo zela. Beraz, gaurko egun pozgarria da; izan ere, garai batean pentsatu genuena bete egin da". ARKOk kudeatutako komunikabideak Goienaren esku daude gaur egun.

> ODOL EMAILEAK

Apirileko hainbat egunetan odola ateratzeko hitzordua egin du odol emaileen elkarteak

Arabako Odol Emaileen Elkarteak deialdia egin du Arrasaten odola ateratzeko apirilean. Honako egunak finkatu dituzte: apirilaren 3a, 10a, 18a, 19a, 25a eta 26a. Hitzordua betikoa da: osasun zentroan, 16:30etik 20:00ak arte.

Joan aurretik, honako zehaztasunak jakitea komeni da: odola eman ahal izateko, 18 urtetik gorakoa eta 66 urtetik beherakoa izan behar da, eta 50 kiloko pisua izan behar da, gutxienez. Odola atera baino lehen, pertsona ondo dagoen aztertzen da. Odola eman baino bi ordu lehenago, ez da komeni bazkari handia egitea. Kopuruari dagokionez, 450 zk ateratzen dituzte, eta horrek ez dauka eraginik emaileen odol-bolumenean. Urte batean, emakumeek hiru aldiz eman dezakete odola, eta gizonezkoek, lau aldiz.

> MERKATARITZA

Maiatzaren erdialdean bukatuko dute merkataritzaren eraginaren gaineko azterketa

Merkataritza-gune berri batek udalerrian izango duen eragina aztertu gura du Arrasateko Udalak. Hain zuzen ere, urte hasieran adjudikatu zion azterketa hori IKEI Kontsultorari, eta hura otsailan bertan hasi zen lan hori egiten. Hala, aurreikusitako epean arabera, maiatzaren erdialderako emaitzak helarazi beharko dizkio Udalari.

Azterketa hori egitearen zergatia dator enpresa batek proiektu bat aurkeztu duelako Arrasaten merkataritza-gune berri bat eraikitzeko, baina ideia horrek kezka handia eragin du, batez ere, Arrasateko merkataritza txikiaren artean. Hain zuzen ere, merkataritza-gune horrek haiengan izango duen eragin negatibo posibleak kezkatzen ditu, bereziki, gune berria Zabaletan -Arrasateren sarreran, Bergararik etorrira- eraikitzen badute.

TURISMOA > BERGARA AUKERATU DUTE BATZUEK ASTE SANTUA PASATZEKO

Herriko landetxeak beteta, eta hotelak ia, Aste Santurako

Kataluniatik, Madrildik eta Palma de Mallorcatik datoz bisitariak Aste Santuko bost egunetarako

Babarrunak jan, Guggeheimera joan edo kostaldea ezagutzen dute datozen gehienek


OIHANA ELORTZA > BERGARA

Herriko landetxeak beteta daude Aste Santurako eta hotelak, ia beteta. Kataluniatik, Madrildik eta Palma de Mallorcatik datoz bisitariak. Kanpoan bizi diren bergarar askok ere hartu dute ostatu, etxekoen ondoan egoteko opor egunetan. Aste Santuko bost egunetarako etorriko dira gehienak; Pazko Asterako eskaera gutxiago dituzte ostatuek.

GABONETAN HASI ZIREN DEITZEN

Beste urtetan bezala, aurten ere Kataluniatik datoz bisitari gehienak. Hala ere, ez dira bakarrak: Madrildik eta Palma de Mallorcatik ere badatoz, adibidez.

Ubera auzoko Anduri landetxean, adibidez, hiru logela bikoitz dituzte, eta denak daude beteta. "Batzuek Gabon aurretik egin zuten eskaera", dio landetxe-ko Josune Lamarainek. "Sei lagun datoz gurera: bi Kataluniatik eta lau Palma de Mallorcatik. Horiek joan den urtean ere saiatu ziren tokia hartzen, baina ez



IA BETETA Ormazabal hoteleko harrera. Hori ere ia beteta dago Aste Santurako.

JOSETXO ARANTZABAL

zuten lortu eta, horregatik, Gabonak baino lehenago hartu dute aurtan. Dirudienez, Interneten ikusi dute gure landetxearen argazkia, eta sekulako interesa sortu zaie bertan egoteko eta ingurua ezagutzeko", jarrailu du Anduriko jabeak. Abuztuko lehen hamabostaldirako ere beteta dituzte sei logelak Andurin.

Lamaño-Etxeberri landetxea ere beteta dago Aste Santuko bost egunetarako: "Sei gela ditugu, eta erdiak kanpoan bizi diren bergarar batzuk eskatu dituzte; beste erdiak, kataluniarrek", dio Maite Aristegik. Lamaño-Etxeberri ere Gabonetan hasi ziren Aste Santurako tokia hartzeko deitzen eta udako eskaerak ere jaso dituzte dagoeneko.

Hoteletan, aldiz, tokia dago oraindik. Ormazabal hotela, adibidez, erdi beteta dute: "14 logela ditugu eta erdiak daude beteta. Kataluniarrek eta madrildarrek dira datozenak", dio Joseba Ormazabalek. Kontatu digunez, Bergara Bilbotik eta Donostiatik gertu dagoelako aukeratzan dute bisitariak. Ariznoa hotela ere ia beteta dagoela esan digu Maika Otañok: "14 logeletatik, 10 ditugu beteta. Orain hilabete inguru hasi zen jendea erretserbak egiten". Zabala ostatua itxita egongo da Aste Santuan.

AFALTZEKO GOMENDIO BILA

Donostia, Guggenheim, Gernika, Gipuzkoako costa zein Urdabai ikustera joaten dira Bergara-

ra etortzen diren bisitari gehienak: "Patxarana eskatzen digute askok eta baita jatorrizko produkturik dagoen edo ez. Horrelakotan, Bergarako erreileno eta tostoiak gomendatzen dizkiegu", dio Josune Lamarainek. Non afaldu, babarrunak non jan ditzaketen edo nora joan ere galdetzen diete turistek ostatuko jabeek. "Egun-karian irakurri dut arrautzaren astea egingo dutela Tolosan, eta gordeta dut artikulua, turistei komentatzeko", dio Lamarainek.

Joseba Ormazabalek esan digun moduan, Bergara herrian bertan ere turista asko gelditzen dira. Turismo bulegoko langileak, behintzat, gertu egongo dira turistei bisita gidatuak eskaintzeko.

> ATXILOKETA

Julen Larrañaga aske utzi dute deklaratu ostean

Julen Larrañaga aske utzi du Guardia Zibilak, "kasualitatez izan zuelako harremana Lerinekin". Guardia Zibilaren esanetan, Larrañaga mendian zebilela, kasualitatez Lerin hurbildu zitzaion, eta autoz eraman zuen; ETArekin harremanik ez duela irizti diote. Julen Larrañaga joan den eguaztenean atxilotu zuen Guardia Zibilak, Seguran, beste zazpi lagunekin batera. Egubakoitzean utzi zuten aske, deklaratu ostean.

> AGORROSIN

Igerilekuak eta gimnasioa, itxita Pazko Astean

Agorrosingo igerilekuak eta gimnasioak itxi egingo dituzte Pazko Astean. Apirilaren 10etik 15era bitartean egongo dira itxita, biak barne. Arrazoia da instalazioak garbitu behar dituztela, Osakidetza eskatzen duen bezala. Garbiketa lan horiek egiteko, itxi egingo dituzte Agorrosin ekintza guneko eremu bustia eta eremu lehorra. Agorrosingo taberna, aldiz, zabalik egongo da.

> IKASTAROAK

Erlaxatzeko eta antsietatea kontrolatzeko

Erlaxatzeko eta antsietatea kontrolatzeko teknikei buruzko ikastaroa egingo dute. Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta du. Emakumeei zuzendutako ikastaroa da, eta, adibidez, arnasa hobeto hartzen, antsietate mailak kontrolatzen eta bizi kalitatea hobetzen irakatsiko diete. Pepa Bojo psikologoa, psikoterapeuta eta sexualitateko monotorea emango du. Doan da, eta udaletxean eman behar da izena, Pazko Astean.

> IKASTAROAK


Informatika eta argazkilaritza eskolak San Joxepen

Informatika eta argazkilaritza ikastaroak emango dituzte San Joxepe elkarteak. Pazko Astearen ostean hasiko dituzte. Informatikakoetan, oinarrizko ikastaroa eta Internet nola erabili erakutsiko dute. Informatikako ikastaroaz gain, argazkilaritzakoa ere emango dute. Astean bi aldiz izango dira eskolak, eta 20 eta 24 ordu artekoak dira. Ikastaroak ez dauden egunetan, informatika gela zabalik egongo da.

Su Ta Gar taldea Aranzadiko ikasleekin egon da

Su Ta Gar musika taldea Aranzadiko ikastolan egon da astean. Ikastolak egin duen aste kulturalaren barruan etorri da Eibarko taldea. Ordubeteko kontzertua jo ostean, ikasleen galderak erantzun zituzten musikariek. Benito Lertxundiren *Oi Ama Euskal Herri* kantuarekin hasi zuten taldeak kontzertua, eta euren *Denbora* eta Hertzainak taldearen 564 kantak jo zituzten segidan.

Horrez gain, ikastaroak, tailerrak, txokolate-jana eta Juan Kruz Mendizabal apaizaren bisita ere izan dute aste kulturalen.



OIHANA ELORTZA

UDALEKUAK > ZERBITZUA UZTAILEAN ESKAINIKO DA

Udalekuak kudeatzeko deialdia egin du Udalak

Enpresek apirilaren 18ra arteko epea dute eskaintzak udal bulegoetan aurkezteko

Irabazleak udalekuetako programa osatu, taldeak egokitu eta begiraleak kontratatuko ditu

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Eguenean, martxoaren 29an, egindako osoko bilkuran onartu zuen Udalak udaleku irekien programa azpikontratatzeko baldintza zerrenda. Azken 16 urteetan zuzenean antolatu dituen udaleku irekiak profesionalizatzeko helburuarekin hartu du Udalak aipatu erabakia. Hortaz, lehiaketa espezialdutako enpresei zuzenduta dago.

BALDINTZAK

Martxoko osoko bilkuran onartutako baldintzen arabera, eskaintza egiten duen enpresak, azken bost urteetan antzerako lanetan izandako esperientzia

baloratuko dute gehien. Halaber, bereziki baloratuko da uztailean egingo dituzten udalekuetarako herriko bertako begiraleak kontratatzea.

Eskaintza ekonomikoa ere aintzat hartuko da. Udaleku irekien zerbitzua kudeatu gura duten enpresek, gehienez, 39.200 euroko proposamena egin behar dute. Bada, eskaintza ekonomiko hori merkatzea ere kontutan hartuko da.

Udaleku irekien programa azpikontratatzeko deialdia martxoaren 29an kaleratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; hortaz, enpresek apirilaren 18ra arteko epea dute euren propo-



UDALEKUAK Oñatiko ume batzuk, iazko udaleku irekietan.

ARTXIBOA

samenak aurkezteko. Udaleku irekiak kudeatuko duen enpresari, maiatzaren 1etik uztailearen 31ra arteko kontratua egingo dio Udalak. Halaber, kontratua beste hiru urtera luza daitekeela jasotzen da lehiaketako baldintzetan. Lehiaketa irabazten duen enpresaren betebeharrak udaleku irekien programazioa osatzea, taldeak

egokitzea, eta begiraleak kontratatzea eta prestatzea izango dira, besteak beste.

HIL OSOKO TXANDAK

Azken urteetako datuek erakusten dute udalekuetan, hilabete osoa egiten zuten umeak geroz eta gehiago direla.

Horregatik guztiagatik, aurren, txanda bakarra eskaintzea-

ren aldeko apustua egin du Udalak; hortaz, ordaintzeko kuota bakarra egongo da. Uztaileko udaleku irekietan hilabete osoa ematen duten umeek 56 euroko izenemate kuota ordaindu behar dute.

Hortaz, udalekuetako kudeaketa profesionalizatzearrekin batera, izenemate kuota garestitu egingo da.

Josu Igartuak irabazi zuen zapatuko finala

Andoni Goitiarekin buruz buruko lana egin ondoren erabaki zuen Oñatiko Bertsolari Txapelketako epaimahaiak txapeladuna Josu Igartua zela. Txapela Benito Barrenaren, Oñatiko bertso eskolaren sortzailetako baten eskutik jantzi zuen.

Zapatuan, Arrano tabernara 150 lagun hurbildu zen finala entzuterara, eta giro bikaina jarri zuten. Josu Igartuak, Andoni Goitiak, Egoitz Aizpuruk, Joseba Lasagabasterrek, Iñaki Olalde eta Beñat Alberdik jardun zuten finalean, eta seiek lan txukuna egin zuten.

Lehenengo eta bigarren sailkatuendako saries gain, ikusleen saria ere banatu zuten, eta Beñat Alberdik jaso zuen sari hori.



IÑAKI OLALDE

KIROLDEGIA

Igerilekua, itxita gaurtik apirilaren 9ra arte

M.B > OÑATI

Osakidetzak, urtean bi aldiz agintzen duen garbiketa sakona egiteko asmoz, Zubikoa kiroldegiko igerilekua itxi egin dute. Hortaz, gaurtik eta apirilaren 9ra arte, biak barne, igerilekua itxita egongo da. Bitartean, igerilekua hustu eta garbitu egingo da.

ASTE SANTUKO ORDUTEGIA

Igerilekua itxita egongo den arren, kiroldegia zabalik egongo da erabiltzaileendako. Bada, Aste Santuko oporrak tarteko, egun batzuetan, kiroldegia itxita egongo da.

Hala, Eguen Santuan, Egubakoitz Santuan eta astelehenean, kiroldegia itxita egongo da. Zapatuan eta domekan, ohiko ordutegian irekiko ditu atea.

APARKALEKUAK

Kalegoieneko garajeen zozketa bihar egingo dute

M.B > OÑATI

Kalegoieneko garajeak erosteko eskaera egin zuten herritarrek bihar dute zozketan parte hartzeko hitzordua. Zozketa udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan egingo da, eta 25 garaje salduko dira.

Zozketa nola egingo den

Garaje plaza bakarra eskatu duten eskariak banaka aterako dira; hala, jabeari, gura duen plaza aukeratzeko bidea emango zaio.

Halaber, bigarren garajea eskatu dutenen eskariekin, prozesu berdina jarraituko da.

Azkenik, plaza gehiago eskatu duen herritarrari, saldu barik, libre geratzen diren garajeen artean aukeratzeko egiteko bidea emango zaio.

ESKORIATZA > UDALA

Aurtengo, 6.494.488 euroko aurrekontua proposatzen da, eta gaur bozkatuko dute, ezohiko bilkuran

Egueneko bilkuran, bertan bizi izateko etxabeei etxebizitza tasatuen erregimena ematea onartu zuten

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA

Aurtengo ekitaldirako aurrekontuak onartzeko da gaur, astelehena, Eskoriatzako Udala, horretarako deitutako ezohiko osoko bilkuran. Batzarrean, 2006ko kontuen likidazioaren berri jasoko du Udaltzako, eta aurtengo aurrekontua bozkatuko du.

Denetara, 6.494.488 euroko aurrekontua proposatzen da. Juan Karlos Bengoa alkatearen esanetan, "nahiko aurrekontu

Aurrekontua bozkatuko du gaur Udalak, ia sei milioi eta erdikoa

egonkorra eta arrunta" da. Batik bat, hirigintzako inbertsioek hartzen dute diruaren gehiena.

BIDEGORRIAK, 1.150.000 EURO

Hala, honako inbertsioak aurrekusten ditu aurrekontu proposamenak: zati handiena, 1.150.000 euro, bidegorri zatia egiteko izango da, Aingeru Guarda biribilaren inguruan, hain zuzen ere. Horietatik 800.000 euro Foru Aldundiak ipiniko ditu, eta beste 300.000, Eusko Jaurlaritzak, herriak berritzeko Izartu programaren bidez.

Beste 300.000 euro Dorletako urbanizazioa bukatzeko erabili gura ditu Udalak, eta San Juan kaleko urbanizazioaren azken zatia egiteko, antzeko kopurua aurrekusten du, 250.000; hortik gehiengoa, 200.000 euro, Foru Aldundiak ipiniko du.

Elizateendako ere partida interesgarriak daude: hala, euren

bideak hobetzeko, 90.000 euro proposatzen ditu Udalak, eta auzo lokaletarako, beste 30.000.

Azkenik, Zubiateko labea konpontzeko partida bat dago, 300.000 eurokoa.

ETXABEAK, ETXEBIZITZA TASATU

Bestalde, joan den egunean, ohiko osoko bilkura egin zuen Uda-

lak. Beste gai batzuen artean, etxebizitzaren ingurukoak landu zuen udalbatzak, eta erabaki garrantzitsu bat onartu zuen: etxebizitzak egiteko diren etxabeak etxebizitza tasatuen ordenantzan sartzea. Hala, etxebizitza tasatuekin gertatzen den moduan, etxabe horietarako eskatzaile zerrenda batuko du

Udalak, eta horien artean zozketa egingo du gero.

Baldintza batzuk bete behar dituzte eskatzaileek: hala, adibidez, gutxienez bi urtean Eskoriatzan erroldatuta egon behar dute; ezingo dute beste etxebizitzaren baten jabe izan; eta 12.000 eta 43.000 euro bitarteko errenta izan behar dute derrigorrez.

Horrez gain, etxebizitzon kalifikazioa betirako izango da, hau da, beti izango dira etxebizitza tasatuak.

Hirigintza arloan ere, osoko bilkuran beste gai bat ere eztabaidatu zuten: San Juan kaleko urbanizazioa egiteko proiektua zeinek egin lehiaketara ateratzea, alegia. Modu horretara erabakiko du Udalak proiektua egitea zeini esleitu. Interesa duten enpresek 26 eguneko epea izango dute euren proposamenak aurkezteko.

Aurrekontuko partida handienak

	KOPURUA EUROTAN
Bidegorri zatia egin	1.150.000*
Dorletako urbanizazioa bukatu	300.000
Elizateetako bideak	90.000
Elizateetako auzo lokalak	30.000
San Juan kaleko azken zatia urbanizatu	250.000**
Zubiateko labea konpondu	300.000

* Horietatik 800.000 Aldundiak jarriko ditu, eta 300.000, Jaurlaritzak.

** Horietatik 200.000 Foru Aldundiak ipiniko ditu.

ARETXABALETA > GAZTELEKUA ETA LUDOTEKA

Pazko astean, zabalik izango da gaztelekua

Ludotekak oporrak hartuko ditu, baina liburu truke azoka prestatzen dabil dagoeneko

L.K. > ARETXABALETA

Herriko gaztetxoek zabalik izango dute gaztelekua Pazko astean. Izan ere, apirilaren 10etik 15era bitartean, egun bakoitzerako ekintza bat antolatu du Udalak. Hauxe da egitaraua: argazki lehiaketa (apirilak 10), mendi irteera (11), galdera jokoen sari banaketa eta jaiak (12), hennazko tatuajeak (13), irteera sorpresa

(14), eta playstation txapelketa (hilak 15). Hilaren 21ean, zapatua, berriro playstation txapelketa izango da.

Atzo, domeka, futbolin txapelketa egin zuten, eta oporrak hartu zituzten hilaren 10era arte.

ERIZ MAGOA

Algara ludotekak Eriz magoaren emanaldia hartuko du bihar,

martitzena, 17:30ean; horren ondoren, oporrak hartuko ditu hilaren 21era arte.

LIBURU TRUKE AZOKA

Apirila irakurzaletasunaren hila-betea dugu. Horregatik, liburu truke azoka antolatu dute ludotekan hilaren 21erako. Oraingo, norberak etxean dituen eta irakurri dituen ipuinak eta liburuak ludotekan uzteko aukera dauka; bakoitzarengatik, beste ipuin bat hartzeko txartela jasoko du emaileak.



HIZLARIAK Aralarako kideak, prentsaurrekoan.

MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA > ADINDUENDAKO EGOITZA BERRIA

Plaza kontzertatu gehiago eskatu ditu Aralarrek

MCCk egin gura duen egoitzaren gainean, konpromisoak eskatu dizkie erakundeei

L.K. > ARETXABALETA

Aralar alderdiak MCCk egin gura duen adinduendako egoitzaren proiektua "interesgarritzat" jo du, baina konpromiso zehatzak eskatu dizkie bai Foru Aldundiari, bai Araxabaleta-ko Udalari, adinekoendako "kalitatezko zerbitzu publikoa bermatzeko".

ERAKUNDEEI KRITIKAK

Horren harira, hainbat kritika egin zizkien alderdiak bi erakunde publikoari. Xabier Sarasua Aralarako bozeramaileak

esan zuenez, "Foru Aldundia ezin da mugatu finantziarioan parte hartzeraz, adinekoen egoitzaren eraikuntza eta kudeaketa goitik behera enpresa pribatuaren esku geratuz". Gainera, salatu zuen 140 plazetatik 70 bakarrik direla hitzartuak, eta kopuru hori gutxienez 100era igotzeko eskatu zuen. "Gaur egun, plaza baten kostu erreala 2.000 euro ingurukoa da hilean", gaineratu zuen.

Hitz gogorak izan zituen Aralarrek Udalarendako ere, zinegotziekin urte betean "inongo informaziorik" jaso ez dutela salatuz. Udalari, Araxabaleta-ko adinduendako lehentasuna hitzartzea eskatu zion Aralarrek, eta baita adindu autonomoei datozen urteotan eman beharreko zerbitzuaren plangintza egitea ere.



FUTBOLINA Denetarikoko ekintzak antolatzen dituzte gaztelekuan; argazkian, atzoko futbolin txapelketa.

JOSETXO ARANTZABAL

ELGETA > ORAINDIK ERE ETXEBIZITZA HUTSAK GELDITZEN DIRA HERRIAN

Bizigune programaren bitartez, hiru etxebizitza eman dira alokairuan

Bizigune programak hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea lortu nahi du, jabezi ziurtatuz etxebizitzaren erabilera ona eta errentaren kobrantza

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Eusko Jaurlaritzaren Bizigune programaren bitartez, hiru etxebizitza eman dira alokairuan Elgetan. Horrek esan nahi du hiru etxebizitza jabe Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritza onartu dutela hutsik duten etxea alokairuan emateko. Ez da erraza Elgetan zenbat etxebizitza huts dagoen jakitea, baina kalkulatu da 100 bat dagoela.

BIZIGUNEN IZENA EMATEA

Debagoienean, Suradesa enpresak kudeatzen du Bizigune programa. Ekimenean etxebizitza gehiago sartzeko nahi dute, eta informazio zabaltzen ari dira *Hutsik duzun etxea bizitzaz bete* lemapean.



ETXEAK eraikitzen ari da Elgetan baina oraindik etxe hutsak gelditzen dira. L.Z.

Bizigune programan izena ematea da lehenengo pausoa. Etxebizitza aztertu egiten dute eta, batzuetan, konpondu egin behar izaten da. Jabeek dirulaguntzak jasotzen dituzte horretarako. Gero,

maizterrak topatu behar dira. Biziguneko teknikoak arduratzen dira lan horretaz. Jabezi errentaren kobrantza eta etxea hitzartutako epean eta egoera onean itzuliko zaiela ziurtatzen zaie.



SARIDUNAK Argazkian, Txema Abarrategi, sariak banatzen. I. LOPEZ DE BERGARA

ARAMAIO > IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Lan asko eta maila altua izan dituzte ipuin lehiaketan

48 lanen artean, zortzi ipuin saritu zituen egunean epaimahaiak

UBANE MADERA > ARAMAIO

Joan den egunean banatu zituzten Txirritola Euskara Elkarteak antolatutako ipuin lehiaketako sariak.

Lehiaketara aurkeztutako 48 ipuinen artean, zortzi aukeratu zituen epaimahaiak.

MAILA BAKOITZEKO, BAT

Hain zuzen ere, honako ipuin hauek saritu dituzte: 1. mailan, guztien artean egindako *E*

Altxorraen bila; 2. mailan, *Arotz langilea*, hori ere guztien artean egindakoa. 3.ean, Joseba Cillaurrenek idatzitako *Jaime Puzkertia* saritu dute. 4. mailan, Beñat Arregiren *Xanko eta Xankuren mendekua*. 5. mailan, *Betiko lagunak*, Joseba Arrizabalagarena; eta 6. mailan, *Auzoko Urrie*, Julen Axperena. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, bi ipuin saritu dituzte: *Aratz Amenabarren Dantza taldea desagerteko bidean*, eta *Parke misteriotua*, Naroa Bidebururena.

Antolatzaileak pozik geratu dira lehiaketak aurten izandako erantzunarekin, eta baita parte-hartzaileek erakutsitako mailarekin ere.

ANTZUOLA > DIPUTAZIOAK ETA PARROKOAK HITZARMENA SINATU DUTE

Parrokia eraberritzeko proiektua abian da

Martitzenean sinatu zuten parrokoak eta Gonzalez de Txabarrik lanak diruz laguntzeko hitzarmena; 800.000 euro emango ditu Diputazioak

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Martitzenean, Diputazioko agintariak izan genituen herrian. Agerraldi hartan, Rafael Eizagirre parrokoak eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak hitzarmena sinatu zuten; hitzarmen horren arabera, Diputazioak 800.000 euroko dirulaguntza emango du Errukizko Amaren parrokia eraberritzeko.

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Egunean, bestalde, parrokia eraberritzeko batzordeak proiektua jendaurrean aurkeztu zuen, Olan etxean. Hantxe azaldu zuten



HITZARMENA Rafael Eizagirre parrokoa eta Gonzalez de Txabarri, hitzarmena sinatu zuten uean. A.I.

zein lan egingo dituzten; besteak beste, honakoak: teiltua konpontzea, fatxadak birgaitzea; instalazio elektrikoa, argiteria, soi-

nua eta berokuntza berritzea, eta erretaulak, organoa eta kanpandorreko erloju sistema zaharberitzea. Sarrera berria ere egin-

go dute, irisgarritasuna bermatzeko. Aurrekontua 1.398.210 eurokoa da. Herritarrei ere eskatu zieten diruz laguntzeko.

LEINTZ GATZAGA

Hiru elizkizun Aste Santuko egunetan

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Apirilaren 5ean hasi eta 8ra bitartean, Aste Santua ospatuko dute kristauak, eta Gatzagan ere izango dituzte elizkizunak. Azken urteotan legez, Martin Mendizabal frantziskotarra etorriko da Arantzazutik mezak esatera. Eguen eta Egubakoitz Santuetan, 17:00etan ospatuko dituzte elizkizunak, eta Pazko domekako meza nagusia 12:30ean izango da.

Aipatutako elizkizun guztiak eta apirileko mezak Gatzagako San Milixan parrokian esango ditu Mendizabal frantziskotarrak, negu partean egin ohi duen legez. Maiatzaren 1ean, oster, Dorletaiko santutegian hasiko da esaten. 12:30ean izango dira mezak, eta azaroaren 1a arte, Domu Santu eguna arte, esango ditu santutegian.

Kirola



> **FUTBOLA**
Mondrak irabazi zuen BTLsren aukako nesken derbia > 18



> **ESKUBALOIA**
Aloñako neskek Gipuzkoako Udaberri saria irabazi zuten > 19



> **ESKUBALOIA**
Ford Mugarrik denboraldiko azken partidua galdu zuen > 19



> **SASKIBALOIA**
Irabazi ondoren, lehen mailara igoera gertuago du Candyk > 20

TRIALSINA > GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO AZKEN PROBA

Alberto Gomezek irabazi zuen elite mailako trialsin proba

Maitane Andueza, Entzi Arbeiza, Ibai Laboa, David Galan eta Javier Mas izan ziren beste mailetakoa irabazleak

Eguraldiaren eraginez, espero baino parte-hartzaile gutxiago hurbildu zen Arantzazura

Gipuzkoako Txapelketako irabazleendako sariak atzoko saioaren amaieran banatu zituzten

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Eguraldi txarrari aurre eginez jokatu zen atzo, Arantzazun, Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azken proba. Eguraldiaren eraginez, antolatzaileek espero baino parte-hartzaile gutxiago lehiatu ziren. Pilotuekin batera, lokatza, euria eta hotza izan ziren domeka goizeko protagonista nagusienak.

Edozelan ere, giro polita ikusi genuen Sindika eta Goiko Benta arteko zirkuituan.

PARTE-HARTZAILEAK

Atzo Arantzazun jokaturako proba bereziki garrantzitsua zen, Gipuzkoako Trialsin Txapelketako azken proba baitzen. Hala, batetik, Arantzazuko probaren irabazleak zehaztu behar ziren, eta, bestetik, Gipuzkoako txapel-dunak. Hortaz, lehia estua izan zen maila guztietan.

47 parte-hartzaileak sei mailatan banatu ziren: elile maila, junior maila, infantil maila, alebin maila, benjamin maila eta nesken maila, alegia.

BOST GUNE

Goizeko hamarrak eta erdietan hasi zen trialsin proba. Ordurako, antolatzaileek bost ibilbide zituzten zehaztuta Sindikatik Goiko Benta artean, eta ibilbide bakoitzak kolore bat zuen, zailtasunaren arabera: zuria, urdina, horia eta gorria. Halaber, ibilbide bakoitzak denetariko oztopoak zituen, eta oso lokaztuta zeuden guztiak.

Pilotuek bi minutu eta erdiko denbora zuten ibilbide bakoitzaren egiteko, eta hiru saiakera.

Gune bakoitzean, epaile bat zegoen, pilotuek egindako lana eta akatsak ikusten. Hala, hanka lurrean jartzen zuten bakoitzean, puntu bat kentzen zieten, eta hanka bost aldiz lurrean jarrita, kanporatuta geratzen ziren.

IRABAZLEA

Parte-hartzaile guztien lana bukatuta, ordu bata aldera, hasi zen sari banaketa.

Lehen-lehenik, atzoko proba irabazleak saritu zituzten: Alberto Gomez, elite mailan; Maitane Andueza, nesken mailan; Entzi Arbeiza, junior mailan; Ibai Laboa, alebin mailan, David Galan, infantil mailan; eta Javier Mas, benjamin mailan, izan ziren irabazleak.

Haren ondotik, Gipuzkoako Trialsin Txapelketak nola gertatzen ziren jakin genuen. Ibai Labosek, alebin mailan; Aitor Muruak, infantil mailan; Iker Gonzalezek, junior mailan; Maitane Anduezak, nesken mailan; eta Iker Lezetak, elite mailan, jantzi zituzten txapelak.

Aipagarria da Iker Lezeta eta Jon Areitio, elite mailako txapel-duna eta hirugarren sailkatua, hurrenez hurren, ez zirela Arantzazun egon, aste bukaeran, Paris inguruan beste proba baten parte hartu dute-eta.

ANTOLATZAILEAK

Eguraldiari aurre eginez, antolaketa taldekoek gogotik egin zuten lana atzokoan. "Eguraldiak ez digu asko lagundu, baina pozik gaude pilotuek egindako lanarekin", azpimarratu zituzten amaieran antolatzaileek.



ZAILTASUNA Lokatzak asko zaildu zuen parte-hartzaileen lana; argazkian, Mikel Rodriguez, ibilbide batean. JOSETXO ARANTZABAL



TXAPELDUNAK Alebin, infantil, elite, junior eta nesken mailetakoa Gipuzkoako txapel-dunak. JOSETXO ARANTZABAL



Goitik hasita, lehenengo ilaran, ezkerretik eskumara: Julen Varela, Gorka Calleja, Oxel Luengo, Joseba Urzelai, Aitor Aspe, Jon Gonzalez eta Danel Agirrebengoa.

Goitik hasita, bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: Julen Moran, Beñat Arabaolaza, Aitor Agirre, Unai Aspe, Gorka Jimenez, Egoitz Uribarren, Ibai Bolinaga, Iker Agirregabiria eta Jon German.

Goitik hasita, hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara: Markel Moran, Aitor Etxezarreta, Ibon Martiarena, Oier Arregi, Markel Prieto, Ander Zubizarreta, Danel Etxagibel, Asier Goitia eta Iban Arana.

Goitik hasita, laugarren ilaran, ezkerretik eskumara: Ander Urrutia, Hasier Larrea, Iñigo Arrazola, Danel Garcia, Xabi Etxezarreta, Josu Kortabarria, Jon Amutxastegi, Unai Biteri eta Oier Arregi.

Goitik hasita, bosgarren ilaran, ezkerretik eskumara: Julen Urrutia, Joseba Garate, Danel Ortubai, Aratz Arzuaga, Ander Eriz, Aitor Larrea, Julen Larrañaga, Andoni Dieguez eta Txomin Etxabe.

Goitik hasita, seigarren ilaran, ezkerretik eskumara: Joseba Vicente, Iñigo Martiarena, Jaime Perez, Marx Eddleston, Oihan Peñas, Ander Murua, Jon Ander Narbaiza, Imanol Etxezarreta eta Jon Ormaetxea.

Asate Pilota Taldea 06-07



 **Servimasa**

LEHENENGO ERREGIONALA > 26. JARDUNALDIA

Hamar jokalarirekin, Bergara hobeia izan zen jokoa antolatzen

BERGARA

1-0

TOLOSA

Bergara > Julio, Oregi, Asier, Josu, Nafarrete, Eldin, Ajuria (Hurtado, 60. min.), Eriz (Jokin, 80. min.), Aitor (Eloy, 75. min.), Canas (Urteaga, 85. min.) eta Martin (Joseba, 75. min.).

Tolosa > Mujika, Barriola, Alonso, Zabala, San Sebastian, Garagarza, Gil, Etxeberria, Balda (Tobias, 60. min.), Elorriaga eta Jauregi.

Bestelakoak > Jendegutxi hurbildu zen Agorrosinera partidua ikustera.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Partidu erdia jokalaririk gutxiagorekin jokatu arren, Bergara Tolosa baino gehiago izan zen zapatuan Agorrosinen, eta garaipea etxean geratu zen. Bergarak baloia ondo mugitu zuen zelai erdian; jokoa jabetza hartu zuten mahoneroek, eta ez zuten jokalaririk gutxiagorekin ari zirela nabaritu ere egin.

TOLOSAK, AUKERA GARBIA

Sailkapenean, bosgarren tokian dagoen taldea da Tolosa; teorikoki, Bergara baino talde indartsuagoa da. Hala ere, Agorrosinen, ez zuten halakorik erakutsi tolosarrek.

Aukera asko sortu ez arren, lehenengo eta garbiena Tolosak izan zuen. 10. minutuan, Tolosako aurrelaria atezainaren



MARTIN Irudian, Martin, baloiarekin, atzean Josu eta Tolosako jokalaririk bat begira dituela.

JOSETXO ARANTZABAL

aurrean bakarrik geratu zen; orduan, urrunetik jaurti zuen baloia, baina Julio atezainak hura kornerrera alderatu zuen. Aurrelariak bere esku izan zuen gola, baina ez zen ausarta izan, eta aukera alperrik galdu zuen.

Atsedenerako bost minutu falta zirela, epaileak Oregi jokalaria egotzi zuen; bi txartel hori ikusi zituen zapatuan Bergarako atzelariak.

Bigarren zatian, Aitorrek aurreratu zuen etxeko taldea: 30.

minutuan, Josuk utzitako baloia sareetan sartu zuen Aitorrek.

Gero, Bergarak aldaketak egin zituen eta, batez ere, Eloyk bizitasuna eman zion Bergarako jokoa. Azkenean, garaipea etxean geratu zen.

EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA > DERBIA, ATXABALPEN

Bergararren bajak aprobetxatu zituen Mondrak irabazteko

MONDRA

2-1

BTLS

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Igoera faseko lehen derbia jokatu zuten zapatuan, Atxabalpen, Mondrak eta Bergarako BTLS taldeak.

Bergararren goberna fase bikaina egiten ari dira, baina zapatuan, jokalaririk garrantzitsuak zituen faltan, eta Mondrak hori aprobetxatu zuen derbia irabazi eta puntuak eskuratzeko.

GOLAK, BIGARREN ZATIAN

Atxabalpen jokatu zen derbiko lehenengo zatia oso parekatua izan zen, baina golak bigarren zatian etorri ziren.

Etxeko taldea aurreratu zuen markagailuan, Maialen Segoviak egindako golari esker. Halaber, BTLS taldea berdinketa lortzeko gai izan zen; Mari Walkerrek lortu zuen berdinketaren gola. Bada, etxeko taldea izan zen berriro aurretik jarri zena; Izaskun Aranbarrik egin zuen gola.

Markagailuan atzetik zeudela, bergararrek aurrera egin zuten, berdinketaren bila, baina, apenas izan zuten aukerarik puntuak bat lortzeko.



BORROKATUA Sarrera itsusi barik, derbia borrokatua izan zen.

JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Zarautz	58	28
2. Hernani	51	28
3. Zestoa	46	28
4. Ordizia	45	28
5. Mondra	42	28
6. Trintxerpe	42	28
7. Berio	42	28
8. Anaitasuna	42	28
9. UDA	40	28
10. Touring	37	28
11. Aloña Mendi	36	28
12. Aurrera	34	28
13. Idiazabal	31	28
14. Hondarribia	29	28
15. Martutene	26	28
16. Mutriku	24	28
17. Pasaia	24	28
18. Urola	20	28

Emaitzak

Zestoa-UDA	0-1
Aurrera-Aloña Mendi	1-1
Ordizia-Zarautz	1-0
Hondarribi-Trintxerpe	1-2
Hernani-Mondra	1-1
Pasaia-Idiazabal	2-2
Martutene-Berio	2-1
Urola-Anaitasuna	0-0
Mutriku-Touring	0-1

Hurrengoak

Aloña Mendi-Zestoa
Zarautz-Aurrera
Trintxerpe-Ordizia
Mondra-Hondarribia
Idiazabal-Hernani
Berio-Pasaia
Anaitasuna-Martutene
Touring-Urola
UDA-Mutriku

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Tolosa	1-0
----------------	-----

BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA

Urnieta-BTLS	3-1
Elgeta	atsedena
Antzuola-La Salle	2-0

BIGARREN ERREGIONALA, KOPA

Mondra-UDA	4-1
------------	-----

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Mondra-BTLS	2-1
-------------	-----

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Urki-Aloña Mendi	0-3
------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Martutene-Aloña Mendi	1-4
Mondra-Sporting de Herrera	2-2
UDA-Burumendi	7-1

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Bergara-Mariño	2-2
----------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

Ekintza-UDA B Arizmendi	4-1
-------------------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA

Ikasberri-Bergara	1-2
Zarautz-Arrasate	0-4

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Tolosa-UDA Arizmendi	3-5
Lengokoak-Bergara	4-0

OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA

Hondarribia-Arrasate	4-0
Aloña Mendi-Antiguoko	1-2

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA

UDA B Arizmendi-Ikasberri	13-0
Bergara B-Soraluze	5-2

KADETE NESKAK, TXAPELDUNEN FASEA

Gasteiz Cup B-Aloña Mendi B	2-0
-----------------------------	-----

EMAKUMEZKOAK, ZORTZINAKO FUTBOLA, KOPA

Mutriku-Arizmendi-UDA	5-2
-----------------------	-----

UDABERRI SARIA > FINALA JOKATU ZEN OÑATIN

Aloña Mendiko gazte mailako neskek Udaberri sariko finala irabazi dute

VERKOL ALOÑA

20-17

ZARAUTZ

Verkol Aloña > Tania (3), Arantzazu (4), Ane (4), Ixone (7), Mireia (2), Maria, Idoia, Tercero eta Itxaso.

Zarautz > Ainize, Leire (2), Elisa (3), Kristina Eider, Mireia (5), Itziar, Eithne, Yholdi (2), Aitziber (5), Idoia eta Nagore.

Golak > Atsedenean: 5-6.

ko lan bikaina, dena gelditu zuen-eta zapatuan Zubikoan. "Denboraldi guztian baino huts gehiago egin ditugu gaurko lehiako lehenengo zatian", adierazi zigun Aloñako entrenatzaileak partidu amaieran.

Etxeko jokalariek ez zuten partiduaren jokoaren ardura hartu. Bestalde, bederatzik jokalarirekin bakarrik zeuden oñatiarrak; eta, hori kantxan nabaritu egin zen. Nahi baina ezinean aritu ziren etxeokak.

INDARBERRITUTA

Atsedenean entzundako aholkuek bere eragina izan zuten bigarren zatian. Jokalariak beste indar batekin atera ziren kantxara; urduritasunak alde batera utzita, joko ona egin zuten oñatiarrek.

Jokoaren ardura hartu zuten etxeokak; hala, jokalaria nagusien lanak berebiziko garrantzia izan zuen taldearen jarreran. Jokoaren erritmoaren jabe egin ziren oñatiarrak; defentsan ondo aritu ziren, zulo guztiak estaliz, eta erasoan joko eraginkorra egin zuten. Aipatzekoa izan zen Ixoneren eta Taniaren lana.

Zapatuko garaipenarekin, Aloña Mendiko neskek Udaberri saria eskuratu dute. Aurten go bigarren saria da; izan ere, aurretik, Gipuzkoako Federazio saria eskuratu zuten oñatiarrek. Orain, Aste Santuko oporren ostean, Kopa txapelketa hasiko dute Oñatiko neskek.



OSPAKIZUNA Garaikurra jaso ondoren, denek batera ospatu zuten Udaberri saria.

JOSETXO ARANTZABAL

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Aloña Mendiko gazte mailako neskek Gipuzkoako Udaberri saria eskuratu dute. Zapatuan, Zubikoa kiroldegian Zarautzen aurka jokatutako finalean, hiru goleko aldeagatik irabazi zuten oñatiarrek; hala, garaipena eta saria eskuratu zuten etxeokak.

LEHENENGO ZATIAN, GAIZKI

Tentsio handiko partidua izan zen; jokoan zegoena kontuan hartuta, jokalariek urduri aritu ziren. Oñatiarrek, bigarren zatira arte, ez zuten benetako joko egin; hala, etxeok lehenengo gola 15. minutuan heldu zen. Ordurako, Zarautzek lau gol eginak zituen (1-4).

Aloña Mendiko jokalariek jaurtiketa asko huts egin zituzten, eta, horrela, ez dago golik egiterik. Gainera, aipatzekoa da aurkarien atezainak eginda-

EUSKADIKO TXAPELKETA > AZKEN JARDUNALDIA

Ford Mugarrik denboraldiko azken lehia galdu zuen

FORD MUGARRI

25-30

BASAURI

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Euskadiko Txapelketako azken jardunaldiko partidua jokatu zuten, zapatuan, Ford Mugarrik eta Basaurik. Hasierako minutuak menderatu arren, garaipenak ihes egin zien arrasatearrei.

Hortaz, Ford Mugarri taldeak Euskadiko Txapelketako lehenengo denboraldia 25 punturekin amaitu du.

HASIERAN, ONDO

Denboraldiko helburu nagusia beteta, hau da, maila ziurtatuta, ezer gutxi zegoen jokoan zapatuko norgehiagokan. Lasaitasunez, ondo jokatu zuten hasieran. Hala, berehala hartu zuten errenta markagailuan; zazpigarren minuturako, dagoeneko lau goleko errenta zuten Balerdiren mutilek, 5-1 ziren-eta aurretik.

Edozelan ere, hasierako minutuetan etxeokak erakutsitako nagusitasuna azkar berdindu zuten Basauriko jokalariek: 6-5 hurbildu ziren markagailuan. Hala ere, etxeok taldea markagailuan aurretik jarraitzeko gai izan zuten atsedenera arte.



IKER OTEGI Gol bakarra egin zuen Otegi zapatuko partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

BIGARRENEAN, BASAURI HOBETO

Beñardo Balerdiren taldeak markagailua menderatu zuen, bigarren zatiko laugarren minutura arte. Une hartan, bizkaitarrak aurretik jarri ziren (15-16); hala, markagailua parekatua izan zen 15. minutura arte.

Une hartan, bizkaitarrek hiru goleko errenta zuten (20-23). Ford Mugarriko entrenatzaileak hutsarte eskatu eta Basauriko golegile onenari, Aldamari, bakarkako defentsa egin arren, etxeok ez zuten aukerarik izan markagailuari buelta emateko.

emaitzak

MAILAZ MAILA

BIGARREN MAILA NAZIONALA

Ford Mugarri-LUK Basauri 25-30

EUSKADIKO GOREN MAILA

Jarrilleras-Verkol Aloña 22-26

LEHENENGO TERRITORIALA, KOPA

Aloña Mendi atsedena

GAZTE MUTILAK

Usurbil-Bergara 31-24

Urola-Aloña Mendi 34-35

GAZTE NESKAK, UDABERRI SARIA

Verkol Aloña-Aiiala Zarautz 20-17

KADETE MUTILAK

Donibane-Aloña Mendi 42-37

Bidasoa Irun-Gatz Museoa Jakion 39-30

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA > IGOERA FASEA

Igoerako lehian, garaipen garrantzitsua

Hirugarren laurdenean, 11 puntuko aldea atera zion etxeko taldeak Lasarteko Ainhoa Taberna taldeari

CANDY BERGARA

46-45

AINHOA TABERNA

Candy Bergara > Aizpurua, Blazquez, Ortiz (13), Morais (4), Arteaga, Murillo, Beitzegi (3), Ugarte, Olaetxea, Iñarra (10), Fernandez eta Herzog (16).

Ainhoa > Alkorta, Gonzalez (9), Mendez (2), Sanchez (6), Montejo (2), Vergara, Barrio, Azpiroz (8), Galarraga (2), Salagrei (3) eta Felipe (8).

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 14-14. Bigarren laurdena: 21-20. Hirugarren laurdena: 38-27. Laugarren laurdena: 46-45.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Igoera lortzeko bidean pauso garrantzitsua eman zuen Bergarako senior mailako saskibaloitza taldeak aste bukaeran. Talde mahoneroak Lasarteko Ainhoa Taberna hartu zuen mendean, puntu bakarrek aldearekin. Zapatuan jokatu zuten lehian, etxekoek asko sufritu zuten, baina,

azkenean, bi puntuak Labegarietan geratu ziren.

HASIERA, BERDINDUA

Lehia oso parekatua izan zen; lasartearrek lehenengo minutuan estreinatuta zuten markagailua, eta Bergarak, berriz, hirugarren minutuan egin zuen lehen saskiratzea.

Lehenengo laurdena 14-14ko berdinketarekin amaitu zen. Bigarren laurdena ere berdintsua izan zen; bi taldeak defentsan nahiko ondo aritu ziren. Hala, barneratzeak egiterako orduan arazoak izan zituzten eta kanpoko jaurtiketa asko egin behar izan zituzten. Atsedenera, puntu bakarrek aldearekin iritsi zen Bergara aurretik (21-20).

HIRUGARREN LAURDENA, ONA

Aldagelatik bueltan, etxeko taldea indarberrituta atera zen. Bergarako jokalariek ondo jokatu zuten; batez ere, defentsan egin zuten lan ona etxekoek. Erasarako orduan, Lasartekoek jarritako 3-2ko defentsa nahiko erraz



BLAZQUEZ Irudian, Gorka Blazquez, baloiarekin.

JOSETXO ARANTZABAL

apurtu zuten mahoneroek. Hala, zazpi minutuan 15-0eko partziala egin zuten etxekoek, markagailua 36-22an utziz. Hirugarren laurdena amaitzeko geratzen ziren hiru minutuetan, lasartearrek bost puntu egin zituzten. Hirugarren laurdeneko azken emaitza 38-27 izan zen.

Abantaila horrekin, etxekoak lasaitu egin ziren; ondorioz, azken laurdena txarto jokatu

zuten. Partidua amaitzeko lau minutu falta zirenean, aurkariak lehia berdintzea lortu zuten (40-40). Bergara azken minutuetan Ortizek egindako hiruko saskiratzeaz baliatu zen garaipena lortzeko. Puntu bakarrek aldeaz irabazi zuen Bergarak (46-45).

Aipatzekoa da Iban Herzogek zapatuan egindako lana: Bergarako jokalariek 16 tanto lortu zituzten Labegarietako lehian.



JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren laurdenean galdu zuen Aloñak

Aloña Mendiko senior mailako neskek 35-54 galdu zuten zapatuan Donostiako Bilintx taldearen aurka. Oñatierrek ondo eutsi zioten lehenengo laurdeneko erritmoari, baina, bigarren laurdenean amaieran, 0-10eko partziala jaso zuten. Ondorioz, ezin izan zioten markagailuari buelta eman. Hurrengo lehia apirilaren 22an jokatuko dute.



JOSETXO ARANTZABAL

Ozta-ozta irabazi zuen Eskoriatzak

Hiru puntuko aldearekin irabazi zuen zapatuan Eskoriatzako gazte mailako taldeak Lazkao Txikiren aurkako norgehiagoka (25-22). Zapatuko lehia gazte mailako federazio txapelketako 8. jardunaldiari zegokion. Hortaz, garaipenarekin, eskoriatzarrak laugarren dirailkapenean, 14 punturekin, bi partidu bakarrik galdu ostean.

IGOERA FASEA

Amaieran galdu zuen Aloñak Ordizian

ORDIZIA

58-52

ALOÑA MENDI

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Senior mailako igoera faseko norgehiagoka jokatu zuten zapatuan Aloñak eta Ordiziak. Jokalari gutxiarekin aurkeztu zen partidura Gorka Judezen taldea; hala, bukarako minutuak oso luzeak egin zitzaizkien oñatierrei.

HASIERA HOTZA

Partiduko lehen laurdenean, gaizki jokatu zuen Aloñak: 10-0 eta 12-2 aurreratu ziren etxekoak. "Oso hotz hasi dugu partidua, eta hortxe galdu ditugu garaipena eskuratzeko aukera asko", azaldu zigun amaieran Aloñako entrenatzaileak, Gorka Judezek.

Bigarren laurdenean, defentsa sendotuz, zertxobait konpondu zuten egoera. Edozelan ere, etxekoak iritsi ziren abantailarekin atsedenera (32-22).

Oñatiko taldeak hirugarren laurdenean amaieran izan zuen partiduko abantaila bakarra; puntu bat aurretik bukatu zuten tarte hura oñatierrek (39-40).

Hortaz, zapatuko norgehiagoka azken laurdenean amaieran erabaki zen. Hala, amaitzeko bi minutu falta zirela, etxekoek 8-1eko partziala egin zuten, eta garaipena eskuratu zuten.

Aloñako jokalariek oso nekatuta iritsi ziren partiduen amaierara.

emaitzak

MAILAZ MAILA

SENIOR MUTILAK

Ordizia-Aloña Mendi	58-52
Candy-Ainhoa	46-45

SENIOR NESKAK

Añorga-Eskoriatza	52-38
Aloña Mendi-Bilintx	35-54

GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi-Barcelo Bidaia	64-30
----------------------------	-------

GAZTE NESKAK

Carnicas SM-Kortazar Txirrita	74-30
Eskoriatza-STL. Lazkao txiki	25-22

KADETE MUTILAK

Construcciones Alkasa-Erroibide	50-46
Aloña Mendi-Krafft	45-53
Easo-Bergara	59-44

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-Barcelo Bidaia	62-41
----------------------------	-------

ARRASATE

Esku pilotan jokatzeko disfrutatu zuten umeei zapatu goizean Iturripeko frontoian

GOIZ HOTZA

Pilotari emanez aurre egin behar izan zioten umeei zapatu goizeko hotzari

JENDE GUTXI

Ez zen ume asko hurbildu frontoira, eta ahal moduan pasa zuten goiza

GUZTIAK, POZIK

Nahiz eta kirol gogokoena ez izan, goiz polita pasa zuten pilotan jolasten



KOLDO CARRILLO

Luis Ezeiza. Unai, Christian, Ander, Iker eta Josu agertzen dira taldeko argazkian.

KOLDO CARRILLO > ARRASATE

Pilota jokoan izan ziren joan zen zapatuan eskoletako haurrak, eta goiz bereziki hotza tokatu zitzaizkien Iturripeko frontoira hurbiltzeko. 10:30ean zuten hitzordua, eta Gazteluondo 4A, Gazteluondo 4B, Luis Ezeiza eta Santa Teresa eta Arrasate Herri Eskolako umeei tantuen bitartez neurtu zituzten indarrak.

Ez zen parte-hartzaile kopuru handiegirik aurkeztu frontoian; antza, pilota ez da umeen kirol gogokoena. Horrela bada, monitoreek aginbideen bitartez moldatu behar izan zuten, haurrak pilotan jokatzeko jarri eta goiza atsegina egiteko. Bereziki hotza izan zen zapatuko goiza, eta umeei eskuarekin pilotakadak emanez epeldu behar izan zuten gorputza. Guztiek batera eta nahastuta jokatu zuten; kaleka eta guztiak guztien aurka.

Ume batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, kontua da haur

talde osoa frontoian ikusi ahal izan genuela esku pilotan eta, bateren batzuk, ondo ematen ere. Esan bezala, ume batzuei ikusten zitzaizkien pilotarekiko atsegina, eta gainontzekoak pilota txaparen gainera bidaltzearekin konformatzen ziren. Edonola ere, goiz hartan ez zen galtzailerik egon.

UME GUTXI

Ez zen ume asko izan Iturripeko frontoian, baina bertaratutakoek goiza atsegina pasatu zuten lagunartean. Bai mutilek, eta baita neskek ere, guztiek eman zioten pilotari indarrez, euren burua lurrera bota zuten aurkariaren tantoa ekiditeko, eta dejadaren bat edo beste ere ikusi ahal izan zuten frontoiko ikusleek.

Guraso batzuk ere agertu ziren, seme-alaben korrikaldiak gertutik jarraitzeko eta animuak emateko. Tanto eta tanto artean amaitu zen kirolerako denbora.



KOLDO CARRILLO

Gazteluondo 4A. Julen, Oier, Aitor eta Andoni agertzen dira goiko argazkian.

TALDE KIROLA EDO KIROL INDIBIDUALAK DITUZUE GUSTUKOAGO?



Christian
Luis Ezeiza

"Egia esan, nahiago ditut talde kirolak," esaten du Christianek zalantzarik gabe. Futbola du gogokoena, baina pilotan ere moldatzen dela erakutsi zuen.



Iker eta Ander
Luis Ezeiza

"Taldea kirolak ditugu nahiago", dio bikote honek ere. "Pilota ere gogoko dut, gehiago ala gutxiago," esaten du Anderrek. Biek ere, futbolearen edo saskibaloian aritzea dute gustuko. "Lagunen artean pasatzen dugu hobeto", gaineratzen dute bi haurrek amaitu baino lehen.



Andoni
Gazteluondo 4A

"Duda barik, talde kirolak nahiago ditut," esaten du Andonik. "Bakarrak jolastea baino atseginagoa" dela ziurtatzen du. Hau ere futbolearen aritzen da.



Oier eta Aitor
Gazteluondo 4B

"Taldea kirolak nahiago ditugu guk ere", dio bikote honek. "Pilota ere oso gogoko dut", esaten du Aitorrek, baina hala ere, biek "futbola nahiago" dutela argi utzi digute. "Kideak talde berean izatea" oso garrantzikoa dela diote, eta atseginagoa norbere buruarekin ibiltzea baino.



Mikel eta Andoni
Gazteluondo 4B

Bi hauek gutxitan ibiltzen dira pilotan, baina, zapatuko goizean, pozik ibili ziren biak ere. "Taldea kirolak nahiago ditugu", baieztatu zuen bikote honek, eta "futbola da gehien gustatzen zaigun kirola", gaineratu zuten amaitzeko. "Lagunak jokoan gertu izatea gustatzen zaigu".

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ASEGI
www.asegim.com
ESTRADÓS
www.consultoriaestrados.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itsaseder

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguroslagunaro.com
WINTERTHUR
www.axawinterthur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmf

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

GARAJEAK / KONPONKETA
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBELOGA
www.autos-ribeloga.com
GALLASTEGI MÓTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jc racing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEA
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com

ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
ANBOTO
www.inmoarrasate.com
ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokokorosti.com
UDALATX
www.udalatx.com

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

KALAMUA
KLOROFILA
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info/

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

LANDETXEAK
ARTEAGA
www.artegalandetxea.com

ATERBE
www.aterbe.com
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE LORADENDA
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multipticas

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia
ANTONIO BENITO
http://www.antonibenito.net

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
ADOX
www.adoxnet.com
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BASTIDA
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIIKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPÓT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesh

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURTXXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> GANBARA TXIKI

Emanaldia egin zuten domekan, eta Bartzelonara doaz laster > 24



> GALIZIA

Galiziako jaki eta folklore jaia egin berri dute Arrasaten > 24



> ELLIOT MURPHY

Arrasateko 3.60 aretoan kontzertua egin zuen egubakoitzean > 27



> JOSEBA APAOLAZA

Euskal zinemaz, telebistaz... hitz egin digu > 29



ERABILTZAILERA Europako Batasunak inposatutako 0,20 euroko kanona erakundeek ordaindu behar dute; erabiltzaileak sekula ez.

XABIER URTZELAI

Liburu mailegatuenak Debagoiengan

Elgeta

La catedral del mar
La brecha
Kutxidazu berriz, Ixabel

Oñati

Lekuak
SPrako tranbia
Brooklingo erokeriak

Eskoriatza

Oihana
La catedral del mar
A la sombra del templo

Arrasate

Galdu arte
Soinujolearen semea
Egun denak ez dira berdinak

Antzuola

La brecha
La catedral del mar
Riomundo

Aramaio

La catedral del mar
Soinujolearen semea
La brecha

Aretxabaleta

El abanico de seda
La conjura del faraon
La promesa del angel

Bergara

Vredaman
Hauts bihurtu zineten
Brooklingo erokeriak

Liburutegitik liburua ateratzea 0,20 euro kostatuko da

Europako Batasunak Espainiako Estatuan inposatu duen liburutegien kanona da

Erabiltzaileek ez dute ordaindu behar; erakundeek erantzunkizuna da

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Europako Batasunetik liburuaren gaineko agindua iritsi da Espainiako Estatura. Izan ere, European liburutegi publikoetatik liburua ateratzagatik kanon bat ordaindu behar da. Espainian, orain arte ez da horrelakorik egin, baina, agindu horren ondorioz, liburuaren legearen proiektua Kongresura iritsi da. Gainera, Espainia zigortu egin du Europak, orain arte kanona ezarri ez izanagatik.

5.000 BIZTANLETIK GORA

Kongresuko Kultura Komisioak pasa den eguaztenean onartu zuen

liburuaren legearen gaineko proiektua. Aste honetan, Kongresuko osoko bilkurak eztabaidatu beharreko kontua izango da lege berria. Lege horren barruan, besteak beste, liburutegi publikoetako liburuak ateratzegatik 0,20 euroko kanona ordaindu beharra ezarriko dute.

Kanonaren ondorioz batzen den diru kopuruaren %70 egilei banatuko zaie, eta gainontzeko %30, editoreei. Baina Espainiako gobernua eta erkidegoek bere gain hartu beharreko kanona izango da hori, bakoitzak ordaindu beharreko portzentaia eraba-

kitzeke dagoen arren. Hala ere, kontsumitzaileak sekula ez du ordaindu behar kanona; erakundeek dagokien erantzunkizuna izango da.

IBARREAN, BOST HERRITAN

Zenbatekoak liburutegi publiko-eragingo die, baina ez herri guztietan; 5.000 biztanletik gorako herrietan soilik. Debagoiengan, beraz, Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ezarriko da liburuak maileguan hartzeagatik kanona.

Ikusi beharreko kontua izango da kanon berri horrek liburu-

tegien erosketan politikan edukiko duen eragina; eta idazle gazte eta gutxi irakurriengan eduki dezakeen eragin negatiboa.

Lege proiektuak liburuaren prezio finkoa ezartzen jarraitzen du, testuliburuak ez diren guztietan. Horientzat, prezio askatasuna aurrikusten du lege berriak. Izan ere, oraintsu arte, deskontua edukitzen zuten, baina, lege berria ezarri gero, prezioa finkatzeko orduan, askatasun osoa edukiko dute testuliburuetan.

Hala ere, alderdi sozialistak beharrezkotzat jotzen du deskontuei eustea.



ABESLARI TXIKIAK Oñatiko Ganbara Txikiok, ekintza berezi bezala, bidaia egingo dute.

GOIENKARIA

MUSIKA > GANBARA TXIKI ABESBATZA

Ganbara Txikikoak Kataluniara doaz bi kontzertu egitera

Apirilaren 10ean eta 13an izango dira kontzertuak, eta 16 piezako errepertorioa prestatu dute; 34 ume eta sei begirale doaz

EDURNE BURGAÑA > OÑATI

Apirilaren 10ean, Oñatiko Ganbara Txikiko kideek Kataluniara egingo dute bidaia. Bi kontzertu emango dituzte bertan: hilaren 10ean Capelladesen, Bartzelonan, eta 13an Santa Coloma de Queraltan, Tarragonan. Baina joan aurretik kontzertua eman zuten atzo herriko Santa Ana Antzokian Ganbara txiki, txikitxoek eta tailerrekoek.

Bidaia egiteko arrazoietako bat "haurrekin proiektu desberdinak egitea" dela azaldu du Aitor

Biainek, Ganbara Txiki taldeko zuzendariak.

ERREPERTORIO ZABALA

Azken ikasturte honetan, kontzertu mordo egin dituzte Ganbara Txikiok. "Pasa den martxoan, adibidez, bost kontzertu egin ditugu", azaldu du Biainek. Orain, "beste era bateko proiektua egiteko gogoarekin", bidaia egingo dute.

Bi kontzertu egingo dituzte, baina aisiak ere badu tartea. "Egun batean, Bartzelonan egon-

go gara hiria ezagutu, hiru dimentsiotako zinemara joan eta beste hainbat ekimen egingo ditugu. Gainera, hurrengo egun batean, Port Aventura ere joango gara", adierazi du zuzendariak.

Hamasei piezako errepertorioa prestatu dute: musika erlijioso, polifonia, euskal eta kataluniar folklorea, afrikar musika eta amerikarra batu dituzte, besteak beste. Hiru hilabetetan prestatu dute, gainera.

Berrogei lagun joango dira bidaiara: 34 haur eta sei begirale. Baina guraso askok ere umeen bidaia aprobetxatuko dute Kataluniara joateko. Bidaia egin ahal izateko, egutegiak, kamisetak eta merkaturak pastelak saldu dituzte.

BIRA > DES-KONTROL AEB-TAN

Des-Kontrolakoak AEBtara joan dira, bigarren aldiz

Barikuan joan ziren, eta apirilaren 15ean bueltatuko dira; zazpi kontzertu egingo dituzte guztira bi aste horietan

E.B. > ARRASATE

Des-Kontrol Arrasateko street-punk-oi taldea AEBtan dago. Bi aste emango dituzte bertan taldekoek, eta apirilaren 15ean bueltatuko dira. Bertara joaten diren bigarren aldia da oraingoa; 2005. urtean egon ziren lehenengo bider.

BILDUMAN PARTE HARTZEN

Bidaia egin aurretik, beste lan bat egin dute hemen. Izan ere, lau abesti berri grabatu dituzte Donostiako Elkar estudioan, otsail eta martxo artean.

Jean Phocas ibili da teknikari lanetan, eta produkzioa Nako eta Des-Kontrol taldearen artean eraman dute. Euskara eta ingelesa erabili dituzte abestietan, baina oraindik ez dituzte kaleratu.

Sei izango dira egingo dituzten kontzertuak: New York, Boston, Santa Cruz, Monterey, San Frantzisko, Sacramento eta Watsonvillen arituko dira arrasatearrak. Bigarren bira da oraingoa, eta aurrekoan, 2005. urtean egindakoan, oso harrera ona lortu zuen taldeak.

Bestalde, orain dela gutxi, AEBtako Templecombe diskoetxeak kaleratu duen *Antidisco league vol. Inazioarteko bilduman parte hartu du taldeak. Bertan, Des-Kontrol* abestia sartu dute. Eurak izan dira Espainiako Estatutik aukeratu duten talde bakarra. Horri esker, euskara ere badago bilduman; gaztelania, ostera, ez.



JOSETXO ARANTZABAL

Galiziarren jaian, olagarroa jan dute

Arrasateko Laubide plazan, galiziarren jaia egin dute pasa den asteburuan. Euskal gastronomiaz kanpo zerbait dastatu nahi zuenak eta olagarroa gustuko duenak bertan eduki zuen aukera. Izan ere, olagarroa galiziar erara prestatuta jateko aukera egon zen. Plazan jarritako karpaz azpian bildu ziren jaian parte hartu zuten guztiak.


IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Hirusta
Zatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

PUBLIZITATE ENPRESA batek KOMERTZIALA behar du DEBARRORAKO - erreferentzia: 07KD

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata interesgarria: finkoa gehi komisioa.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:


- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Debarroan bertan edo inguruan bizitzea.
- Debarroko inguruak ongi ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali

gizabaliabideak@jarduna.net posta elektronikora

((112))
SOS DEIAK

AZKEN JOERAK BETAURREKOETAN GUREAN



Ray Ban

Elle MacPherson




Gucci

Victoria Beckham



Dior

Sharon Stone



Chrome
Hearts

Elton Jhon



Cavalli

Marta Sanchez



Jee Vice

Elsa Pataky



Ray Ban
Wayfarer

Siena Miller



Marc Jacobs

Nicole Richie



Initium

Liam Gallagher



Tom Ford

Angeline Jolie, Jennifer Aniston eta Rania de Jordania



ITZIAR UGARTE
OPTIKA

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE 943 08 26 87
Escola Politeknikoaren ondoan

www.euskoauto.toyota.es

AURIS

Toyota berria



Auris. Dena hemen hasten da.



Auris. Eguzkian inspiratutako autoa. Bere indarrean. Barrutik botatzen duen energian. Horregaitik dago barrutik kanpora diseinatuta. Bidaia-errosotasunean eta segurtasunean pentsatzen. Toyotan, dena hemen hasten da.

Auris. Toyota berria. 14.710 *-tik aurrera



TODAY TOMORROW **TOYOTA**



Informazioa eta probatzeko:
902 342 902

Euskoauto 2003 S.L.

San Marcos bidea 32 Pavinsa eraikina PASAI ANTZO. Tel.: 943 345 080
Olaso poligonoa 25 ELGOIBAR. Tel.: 943 747 417
Olabarrena z/g BERGARA. Tel.: 943 762 385

*Prezio baliogarria Penintsula eta Balear uharteetarako "Auris" 1.4 VVT 97 zp 3 ate bertsioarentzako (pintura metalizatua ez dago barne). BEZ-a, matrikulazio zerga eta garraioa barne. Iragarkiko modelo: Toyota Auris 2.2 D-4D D-CAT 5 ate "Sport". Kontsumo mistoa 5,0 eta 9,0 artean l/100 km. CO2 emisioa 119 eta 209 g/km artean.



KALITATEZKOA Elliot Murphy, kontzertuko une baten. Maila ona eman zuen Arrasaten.

JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA > ELLIOT MURPHY 3.60AN

New York-eko abeslariak 25 albumetik gora ditu, eta bere abesti ezagunenak jo zituen

Orain bi urte, 2005eko San Juanetan ere, Arrasateko Monterronen jo zuen; orain, 3.60an izan da

A.G. > ARRASATE

Egubakoitz gauean, Elliot Murphyren rock-and-rolla entzuteko parada egon zen Arrasateko 3.60an eta 200 pertsona inguru joan ziren bertara.

Elliot Murphyren rock-and-rollak 3.60an jendea dantzan jarri zuen

New York-eko abeslaria Arrasatera etortzen den bigarren aldia izan da oraingoa. Orain bi urte, Monterronen jo zuen, San Juan jaietan. Zahar eta gazte bildu zituen bi emanaldietan, eta guztiek egin zuten dantza.

ERRITMO AZKARREKIN DANTZAN

1973. urtean hasi zen rock-and-roll akustiko eta folk-rock abeslari gisa. Urte horietan guztietan, 25 albumetik gora kaleratu ditu abeslariak. 70eko hamarkadetako blues, rock eta countryan inspiratutako musika egiten du Elliot Murphyk.

Musikari lanak ondo egin zituen 3.60 aretoan. Kalitatezko kontzertua egin zuen, eta pieza azkarrenekin gozatu zuen gehien jendeak.

Emanaldia 23:00etan hasi zen, eta *Coming home again* azken disko zein artistaren ibilbide osoan ezagunak diren abestiak jo zituen Arrasaten. Azken laneko abestiek, gainera, berriro ere 60 eta 70ko hamarkadetako folk rock amerikarrera eramaten dute.

New York-ekoa da Elliot Murphy jaiotzez, baina hamazazpi urte daramatza Parisen bizitzatzen, eta zortzi AEBtan jo gabe.

Europan, 100 kontzertu inguru egiten ditu urtean, Arrasaten azkena, eta nahikotzat jotzen du musikariak. Istorioak kontatzeko era bereziak, imaginazio poetikoa eta barrura begirako letrek estilo berezia eratzen dute.

ERRITMO AZKARREKIN DANTZAN

Musikari bezala, bikaina da Elliot Murphy, baina pertsona bezala ez zuen halakorik erakutsi Arrasaten.

Jim TNTk jo behar zuen bere aurretik, baina New York-ekoak azken orduan oztopoak jarri zituen. Ez zion utzi arrasatearra-

ri soinua probatzen eta, hori gutxi balitz, herrikoak aurrez jo behar zuen, baina Elliot Murphyk berak 23:00etan jo nahi zuela esan, eta halaxe egin zuen.

Amerikarraren ostean, beraz, arrasatearren txanda iritsi zen. Aurreko entzuleen erdiak geratu ziren, eta giro oso onean egon ziren. Jim TNTren arrebak biolina jo zuen. Elliot Murphy izen handiko artista izan arren, Jim TNTk lagun arteko giroa sortu zuen. Inprobisaziorako tarte ere hartu zuen, eta amerikarrari aurrepegi esan ezin zizkionak abesti bidez esan zituen.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

gazte zerbitzuak

EKINTZAK

> **Euskal Udalekuak 2007.** 7 urtetik 17 urtera arteko gazteentzako udako ekintzak. Abaigar, Bernedo eta Goñin.

> **Aste Santuko ludoteka.** Txuri Urdin Izotz Jauregia. Apirilaren 2tik 13ra arte eta 08:30etik 13:30era.

> **Auzolandegiak 2007.** Eusko Jaur-larritza. Informazio gehiago: www.gazteaukera.net webgunean.

> **Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa.** Eusko Jaur-larritza. Baldintzak: EAEn egoitza izatea, eskabidea aurkezteko unean 20 urtetik gora izatea, 2007ko abenduaren 31ra arte 31 urtetik behera izatea eta jardueraren nazio-arteko hizkuntza menperatzea. Epea: apirilaren 13tik 30era, biak barne.

LEHIAKETA

> **Gipuzkoa %100.** Gipuzkoako Foru Aldundia eta Amasté. 12 eta 18 urte bitarteko gazteendako lehiaketa. Telefono mugikorrek grabatutako bideoak. Epea: maiatzaren 31.

> **Ingeles Hizkuntza.** Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa. Martxoak 30.

IKASTAROKA

> **Sukaldari ikastaroa.** D'Elikatuz. Lau elikadura tailer saio, elikadura hobetzeko oinarriko irizpideen gainean, Donostian eta Ordizian.

LANA

> **Hezitzaileak.** Txatxilipurdi Elkar-tea. Arrasate eta Antzuolako Gazte Txokoetarako. Epea: apirilaren 16a.

> **Hezitzaileak.** Kabia elkarte. Astialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu Lanerako titulazio ofiziala eskatuko da eta baita ere euskara ezagutzeko izatea. Epea: apirilaren 30a.

> **Begiraleak.** Txatxilipurdi Elkar-tea. Udako kanpamenduetarako begiraleak. Epea: maiatzaren 4a.

> **Aholkulari juridikoa.** Tolosako Udala. Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuko departamentuan lanak egiteko teknikari bat. Epea: apirilaren 4a.

> **Arte Grafikoa.** UPV-EHUko III. taldeko rte grafikoetako langileen lan poltsa. Epea: martxoak 28.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:

Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:

Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazio@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuolan 72 metro koadro. Hiru logela. Berogailua. Jantzita. 685 70 41 10.

Arexabaleta. 97 m², hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, berogailua. Erdialdean. 660 79 27 67.

Arexabaleta. Etxea salgai. 72 m², berrirezko. Garajea aukeran. 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. 60 metro koadro. Hiru logela, komuna, sukaldia eta egongela. Egoera onean. 616 33 79 33.

Arrasate. Etxebizitza salgai Erguinen. Kanpoaldera begira. 70 metro koadro. Hiru logela, egongela, bainugela, jantzitako sukaldia, bi balkoi. Berogailua du eta guztiz jantzita dago. Telefonoa: 628 53 86 66.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldia berri eta jantzita. Terraza eta berogailua ere baditu. Oso eguzkitsua. Bizitzera joateko moduan. 227.180 euro. Telefonoa: 628 88 81 08.

Arrasate. Grupo San Juan. 60 metro koadro. 4. solairua. Igo-gailua, ganbara eta sotoa. Telefonoa: 606 25 92 80.

Arrasate. Urbe auzoan etxea salgai. 85 m², berri. Garajea eta trasteleku aukeran. Telefonoa: 626 35 60 90.

Arrasate. Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldia, trasteleku eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

Bergara. Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariek. Bizi izatera sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

Bergara. Eguzkitsua. 80 metro koadro. Hiru logela, egongela, sukaldia, komuna eta bi terraza. Berogailua du. Guztiz berri. 665 70 21 92.

Bergara. Erdialdean (Simon Arrieta). 80 metro koadro. Balkoi ederra du eta berogailu indibiduala. Igo-gailuarekin. 258.400 euro. Deitu telefono honetara: 664 73 49 60.

Bergara. Etxea salgai Labegarietan. Berritua. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. Telefonoa: 635 71 04 55.

Bergara. Labegarietan etxea salgai. Berritua. Prezio interesgarria. 635 74 28 84.

Bergara. Labegarietan. Eguzkitsua. Etxetresna elektrikoek 6 hilabeteko bermea. Telefonoa: 635 71 04 55.

Bergara. Matxiategi kalean, 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Saloia, jangela, sukaldia, bainugela eta 3 logela. Berogailuarekin. 638 86 82 53.

Bergara. Zubiaurre kalean. 60 metro koadro. Berogailua. Guztiz jantzita. 162.000 euro. 619 65 10 87.

Bergaran. Koldo Eleizalde kalean 97 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, eguzkitsua; bista ederra. Garajearekin. 655 71 03 23.

Eskoriatza. Hiru logela, bi bainu oso, egongela, sukaldia. Dei-

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

tu 18:00etatik aurrera. Telefonoa: 699 36 27 19.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorentzo auzoan. Saloi-sukaldia eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Soraluze. Erdialdean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. Berritua. 687 08 33 00.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Apartamentua hartu nahi dut errentan urtebetetarako. Erdialdean bada hobeto. Ainhoa. 943 71 20 80.

Arrasate. Erdialdean. Bikote batendako aproposa. Telefonoa: 647 57 84 81.

Arrasate. Santa Ageda auzoan dagoen etxebizitza emango nuke errentan. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna ditu. 943 79 77 25 edo 696 82 05 65.

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Uztailaren hartuko nuke etxebizitza bat errentan, aste-betez, uztailko bigarren edo hirugarren astean. Miren. 637 52 89 83.

Debagoiena. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 667 08 39 89.

Familia batek etxebizitza errentan hartuko luke Arrasate, Arexabaleta edo Eskoriatzan. 617 69 07 52.

Oñati. Bikote batek etxebizitza errentan hartuko luke. Telefonoa: 663 03 13 22.

Oñati Bikote batek etxebizitza bat errentan hartuko luke. 663 03 13 22.

105. ETXEA OSATU

Arrasate Erdiguneko pisu batean logela bat daukat alokairuan. 619 45 42 77.

Gasteiz. Etxebizitza osatzeko beste neska bat behar da Gorbela kalean. Oso handia. 300 euro. 652 72 18 87.

BERGARA

Depor tabernak zerbitzaria behar du.
629 26 88 51

106. BESTELAKOAK

Arexabaleta. Etxebizitza eraikitzeko baimena duen lokala salgai. Argitasun handia, leku lasaia eta ondo kokatua. Eremua 74 m² eta altuera 3,35 m. Telefonoa: 699 86 14 32.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Ibargarain garajea saltzen da. 7,50x2,70 metro. 20,25 m². 24.000 euro. Deitu arratsaldeko seietatik aurrera. 678 43 31 07.

Elgetan. 17 metro koadroko garajea salgai. 943 76 97 97.

Eskoriatzan 21 m²-ko garajea saltzen da. 652 83 10 42.

202. EROSI

Oñati. Garaje edo lokal bat erosiko nuke Bidebarrieta kalean. Deitu telefono honetara: 610 01 00 63.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea errentan ematen da Uarkapen. Telefonoa: 605 77 52 75.

Bergara. Bolu auzoan. 6,70 x 3,30 neurrikoa (22 metro koadro). Eguerdian deitu. Telefonoa: 685 71 18 44.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Bulegoak alokagai Otalora 18an, Uarkapeko arkupeetan. Deitu telefono honetara: 638 17 93 63.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Nagusiak zaintzeko emakumea gertu. Urte askotako esperientzia. 943 08 12 80.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume eskalduna gertu edozein lanerako. Deitu telefono honetara: 659 82 75 18.

Arrasate. Emakume esperientziarekin gertu umeak zaintzeko. Deitu telefono honetara: 635 70 31 01.

Arrasate. Emakume esperientziarekin jantzetan mahaia zerbitzatzeko prest. Deitu telefono honetara: 635 70 31 01.

Arrasate. Emakume lanerako gertu. Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen. Telefonoa: 663 61 74 38.

Arrasate. Mutila lanerako gertu. Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen. Deitu telefono honetara: 663 61 74 38.

Arrasate. Neska esperientziaduna gertu arratsaldean orduka lan egiteko. Pertsona nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 666 21 88 95.

Debagoiena. Emakume gaztea lanerako gertu. Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen. Deitu telefono honetara: 646 75 08 07.

Debagoiena. Emakume gazteak orduka lan egiteko luke, edozein lan motatan. 677 05 99 99.

Debagoiena. Emakume gazteak orduka lan egiteko luke, edozein motatako lanean. Telefonoa: 628 52 34 06.

Debagoiena. Emakume gertu lantegian edo ostalaritzan lan egiteko. 660 27 66 05.

Debagoiena. Emakume lanerako gertu. Garbiketan edo umeak zein adinekoak zaintzen. Telefonoa: 638 89 19 81.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu etxeko lanak egiteko, umeak zein adedatuak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo beste edozein lanerako. 663 46 93 60.

Debagoiena. Mekanikako ofiziala lanerako gertu. Debagoieneko lan egiteko. 667 08 39 89.

Debagoiena. Mutil bat eskaintzen da sukaldari edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. 666 21 88 95.

Emakumea gertu arratsaldetan lan egiteko: nagusian zaintzen, tabernak garbitzen, etxeko garbiketarako egiten... Telefonoa: 943 77 16 73.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Alemaneko klase partikularrak jasoko nituzke. Maila: mittelstufe. 665 77 51 28.

Marratzeta eskolak emateko irakaslea gura dut. Umeekin lan egiteko da. Euskaraz jakin behar du, eta esperientzia izan. Argibide gehiagorako, Mari Jose. 635 70 20 74.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Autorako erremolkea salgai. Frenoarekin. Oso egoera onean. Deitu telefono honetara: 657 77 97 52.

Citroen C3 autoa. Berria. 40.000 km, 6.300 euro. 688 60 58 63.

Citroen Picasso 1600 autoa. Garajearen egon da. 30.000 km. Gasolinazkoa. 659 44 75 08.

Ford Transit salgai. Telefonoa: 618 62 62 51.

Golf 3 TDI autoa prezio onean salgai. Deitu telefono honetara: 615 74 43 37.

Hyundai Accent. 1.3 GLS 82 ZP. 1997koa. 65.000 km. Telefonoa: 619 45 42 87.

Hyundai HL. Zazpi plaza Hyundai H1 furgoneta salgai. Telefonoa: 669 70 84 19.

Iveco Daily furgoneta. 40.000 km. Deitu telefono honetara: 659 44 75 08.

KTM 450 EXC motorra salgai. 2004koa. 5.600 euro. Deitu telefono honetara: 635 74 01 23.

KTM EXC 450 2004-koa saltzen dut. Deitu telefono honetara: 646 05 74 78.

Land Rover Discovery TDI salgai. 1997koa, 148.000 km, egoera onean. Deitu telefono honetara: 659 04 20 99.

Mini One. 2004/04, 23.000 km, kanpotik beltza, barrutik beltza eta gorria. Estrak ditu. Egoera ezin hobean. 11.000 euro. Telefonoa: 685 72 51 58.

Seam Leon TDI. FR modeloa. 150 ZP. Urdina. Juan Luis. Telefonoa: 629 65 26 40.

Volkswagen Sharan 1.8 Turbo. Gasolinazkoa. 1999koa; 121.000 kilometro, ABS, aire-girogailua eta aire-poltsak. Oso egoera onean. 7.500 euro. Telefonoa: 645 73 97 69.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Artzain txakurkumeak oparitzen ditut. Telefonoa: 695 78 77 30 edo 943 78 35 69.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Aulki gurpilduna, tolesgarria (besoak eta oinak jartzekoak kendu egin daitezke). Oso ongi dago (250 euro). Telefonoa: 625 70 11 38.

Bi eskopeta salgai. Deitu telefono honetara: 660 05 98 23.

Ecotermi markako hiru berogailu elektriko salgai. Kontsumo txikiak: bi 600 wattkoak eta beste 350 wattkoak. 200 euro hirurak. Deitu telefono honetara: 943 76 47 01.

Jaunartzea egiteko almirante jantzia saltzen dugu, 10 neurrikoa. 150 euro. Deitu telefono honetara: 943 77 16 73.

Nagusientzako taka-taka bat, dinamikoa eta tolesgarria, gurpilik gabea. Aluminiozkoa... (60 euro) saltzen dut. Deitu telefono honetara: 625 70 11 38.

Oñatin Bigarren eskuko esteti-zista aparailu batzuk saltzen dira. Deitu telefono honetara: 610 75 10 00.

Umeendako eserleku jasotzaileraren behar da. Automobilean jartzeko da. Babideale markakoa da. 20 euro balio du. Deitu telefono honetara: 943 79 41 31.

808. BESTELAKOAK

Trontzan aritzeko bikotekidea behar da. Deitu telefono honetara: 610 36 39 94.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Debagoiena. 40 urteko emakume batek 45-55 urte bitarteko gizonezko bila dabil. Teresa. Deitu ezazu telefono honetara: 647 29 18 53.

Apirilaren 2a:
124. zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 2, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goiienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuzan zaitzake hurrengo zozketako irabazle bat!

Saridunak

125. zozketako saria

Harpidedun ez bazara...

Aste honetan Realeko txaleko bat eta motxila bat zozketatu ditugu ASTELEHENEN GOIENKARIAKO harpidedunen artean.

- Miquel Angel Agirrezabal Lete (Bergara)
- Susana Aiausti Lazkanoiturburu (Oñati)

PAMIELA
argitaletxeak bi
liburu sorta



Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

35 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenen, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 2



> Gaur, 'mushing'-a 'Harmailatik' programan 21:15

Itoitz Armen-dariz musher-a elkarrizketatuko dute Harmailatik saioan. Kirolari hori Europako eta Munduko txapelketetan izan da.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Teknopolis.
14:15 hitz bitan.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ilunpean.
15:45 Gaurkoak.
15:47 MKT.
16:00 Gatza ta berakatza.
16:15 Jazzminia.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ur eta Lur.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Musikantoi.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Didjeridu.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Ikusmira.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 3



> Ibarreko albiste guztiak, 'Berriak' saioan 19:45

Debagoieneko azken berriak beste inork baino lehenago ekarriko dizkizu GOITBk, Berriak albistegian, Larraitx Zeberio aurkeztuta.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Harmailatik.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak.
16:15 Ikusmira.
16:45 Albisteak.
17:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ur eta Lur.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
18:30 MKT.
19:45 Albisteak.
19:15 Harmailatik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Didjeridu.
23:45 Gaurkoak.
23:15 Hitz bitan.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 4



>Txirrindularitzaz arituko den saio berezia 21:15

Txirrindularitzaren inguruan arituko dira Jon Odriozola, Iban Velasco, Iban Iriondo, Marino Lejarreta eta Arantzazu Azpiroz.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ur eta Lur.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmailatik.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Musikantoi.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Mahai ingurua.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Mahai ingurua.
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:47 Ur eta Lur.
00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 5



> 'Didjeridu': gazteen inguruko saioa 22:15

Didjeridu saioan, Jone Pagoaga eta Aratz Mendizabal izango dira elkarrizketatuak. Gainera, teknologiaz egingo du berba Maider Arregik.

08:00 Emisio hasiera
08:05 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra, Calimero eta Trikitraka trikitron-antzerkia.
11:30 Ikusmira.
12:00 Bertsokak.
12:30 Klip@.
13:00 Gatza ta berakatza
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Antzerkia.
14:15 Bertsokak.
14:45 Eltze beroa: langostinoak.
15:30 Lorez lore.
15:45 Telesaila.
16:15 Ikusmiran.
16:45 Marrazki bizidunak: Antzerkia.
18:45 Teknopolis.
19:15 MKT.
19:30 Gatza ta berakatza.
19:45 Eltze beroa.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Antzerkia.
21:15 Berbaire.
21:45 Musikantoi.
22:15 Didjeridu.
22:45 Klip@.
23:45 Erreportajea.
23:47 Ilunpean.
00:00 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 6



> Marrazki bizidunak eta antzerkia 13:20, 17:15, 20:15

Marrazki bizidunen emanaldiekin batera, ikastetxeek Arrasaten egindako antzerki topaketak eskainiko ditu GOITBk.

08:00 Emisio hasiera
08:05 Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra, Calimero eta Trikitraka trikitron-antzerkia.
11:30 Ur eta Lur.
12:00 Bertsokak.
12:30 MKT.
13:00 Gatza ta berakatza
13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Berbaire.
14:15 Musikantoi.
14:45 Eltze beroa: Magreb.
15:30 Lorez lore.
15:45 Didjeridu.
16:15 Ikusmiran.
16:45 Marrazki bizidunak: Antzerkia.
18:45 Hasiberriak.
19:15 Erreportajea.
19:30 Eltze beroa.
19:45 Eltze beroa.
20:15 Marrazki bizidunak.
20:45 Antzerkia.
21:15 Teknopolis.
21:45 Bertsokak.
22:15 Ilunpean.
22:45 Klip@.
23:45 Berbaire.
23:47 Jazzminia.
00:00 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> Txinako Korrikaren biharamuna, 'Igo autobusera!' saioan 11:10

Txinaraino heldu da Korrika. Izan ere, Shanghain bizi den eta hango Euskal Etxeko kide den Jokin Lazpiur arrasatearrak kontatuko digu zelan Txinan bizi diren euskaldun batzuek Korrika egin duten han ere.

Astelehenetik eguaztenera

09:30 Agenda. Hitzordu proposamenak.


10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Merkatu txikia.
Elkarteen geltokia.
Erakundeen geltokia.
Lorategiaren geltokia.
Zozketak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31)

12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
19:15 Erreportajea.
14:00 Igo autobusera! (errep.).
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.).

Apirilaren 5etik 15era

10:00 2007. urtean izan ditugun elkarrizketen bildumak berreskuratuko ditugu gure artxibotik.

gertutik



Joseba Apaolaza
Aktorea

"Komedia on bat egitea ez da erraza, eta ikustea ere ez"

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Joseba Apaolazak irakasle ikasketak egin zituen eta, irakasle lanetan lau urte bete zituenean, antzerkira saltoa ematea erabaki zuen. Antzerkian ibili izan da gehienbat, baina telebistako hainbat saiotan nahiz zineman ere ikus ahal izan dugu. Orain, Artea eta Lapur-zulo lanekin dabil buru-belarri.

Orain arte egindako euskarazko filmek maila ona dute?

Eutsi ez dut ikusi oraindik, baina beste biek oso maila polita eman dute. Uzta txikia da, eta ezin dugu pentsatu urtean film bat eginez Oskarretara joango garenik.

Zer nahiago duzu, komedia ala drama?

Antzerkian, nahiago dut komedia interpretatu, baina egia da beti genero desberdinak ukitu behar direla. Komedia on bat egitea ez da erraza, eta ikustea ere ez. Ikusteko, intriga gustatzen zait, baina, zinema ona bada, ona da, generoetatik aparte.

Gerora, Estatuko proiekturen bati helduko zenioke?

Bai, beti irekiak gaude, eta irekiak egon behar dugu. Azken finean, boladaka gabiltza lanbide honetan. Proiektua interesgarria balitz, gertu egongo nintzateke, nik ez ditut inongo ateak itxi, baina egia da etxetik gertu egotea gustatzen zaidala.

Lanik ez dagoenean, zer egiten du aktoreak?

Harrapatu nauzu pintatzen, Artea-n soberan gelditu diren mihi-sak aprobetxatzen. Pintatzea zer den jakin nahian nabil, orain hasi naiz. Ni ez naiz pintorea, ezta gutxiago ere! Eta etxean lan asko daukat, baserri-tar lana ia. Egia esan, denbora asko aprobetxatzen dut, eta gustura nago.

Zer ez zenuke inoiz egingo?

Esango dut zer ez dudan egin: publizitatea. Aukerak izan, izan ditut, baina uko egin diet beti; nire buruari esan nion: "Ea noiz arte egon naitekeen publizitaterik egin gabe". Ez dut esaten ez nukeela egingo; suertatuko balitz zerbait polita eta benetan erakargarria niretzat, beharbada egingo nuke. Baina ez dut inoiz nire burua eskaini diru truke zerbait saltzeko.

asteko hitzorduak

Zinema



ARRASATE

> Bihar, apirilak 2, 'Miss Potter' filma emango dute Amaia Antzokian

Miss Potter izeneko filma eskainiko dute bihar, martitzena, Amaia Antzokian. Arratsaldeko zortziak eta erdietan hasiko da. Bere garairako aurrerakoa zen Beatrix Potter emakumearen istorio harrigarria kontatzen du filmak.

Antzerkia



ARETXABALETA

> 'Erreka Mari' izeneko txotxongilo emanaldia izango da bihar

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, Erreka Mari txotxongilo emanaldia izango da Aretxabaletako Udal Liburutegian. Panpinez Blai taldeak 4 eta 8 urte arteko umeendako saioa eskainiko du.

Erakusketa



ESKORIATZA

> Eskoriatzako toponimiari buruzko erakusketa izango da ikusgai

Apirilaren 10ean, domeka, hasi eta maiatzaren 6ra bitartean, Eskoriatzako toponimia gai duen erakusketa izango da herriko kultura etxean. Erakusketa ikusteko aukera izango da 18:00etatik 19:00ra.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Debagoieneko haizearen onurak

Aste Santua gainean dela eta, oporrak hartu ditugu. Datorren astean ez duzue Debagoieneko txutxu-mutxuen berri izango, baina, hilaren 16an, indarberrituta etorriko naiz. Hori espero dut, behintzat!

Indarberrituta dabilzanak Realeko jokalaria dira. Ez dakit Debagoieneko haizeak on egin dien edo zer, baina joan den egubakoitzean Arrasaten izan zen Ansoategi berritxuarak egin zuen, zapatuan, Levanteren aurkako gol bakarra. Garaipena balio duen gola, gainera.

"Zapatuan, Radio Euskadiko esatariak 'oñatiar' deitu zion Mikel Gonzalez arrasatearrari"

Dena beharko dute: Debagoieneko haizea eta Debagoieneko zaleen animuak. Hala, Arrasatetik jende mordoa joan zen zapatuan Anoetara. Partidua irratiz entzun zutenek, berriz, susto ederra hartu zuten. Radio Euskadiko esatariak ez zion ba Mikel Gonzalez oñatiar deitu? Akatsa berehala zuzendu zuen esatariak. Oraingoz, zerrajeroa izaten jarraituko du. (Edo, gasolina?)

Joan den astean bota nuen Asteko Galderak izan du bere erantzuna, bakarra bada ere. Orain arte, ez nekien inork irakurriko ote zuen tarte txoro hau. Baina orain, badakit Udako Mamu eta Momia euskaldunek, behintzat, irakurtzen dutela. Eskerririk asko! Plastikozko zurizko kornetaduna.

asteburuko albuma



Emakumeen kinto bazkaria Arrasaten. 1940an jaiotako 30 emakume inguru elkar-tu ziren zapatuan Arrasaten, urteroko ohiturari jarraituz, ospakizuna egiteko. Meza entzun zuten lehenengo parrokiari, eta, bazkaritarako, batzokira joan ziren gero denak batera. Parrokia ere lagun izan zuten bazkaritan emakumeek, euren urte berean jaiotakoa baita hori ere. Bapo bazkaldu ostean, lagun arteko tertuliarik ere ez zen falta izan mahaiaren bueltan.



Ikasleak, Bergarako udaletxean. Bergarako San Martin Agirre herri eskolako hirugarren mailako ikasleak eta irakasleak herriko udaletxean izan dira. Eraikin esanguratsua barrutik nolakoa den ikusteaz gain, bertako zerbitzuak hobeto ezagutzeko bisita gidatua egin zuten. Txikienek alkatearekin elkarrizketa egiteko ere aprobetxatu zuten udaletxe egonaldia.



81eko kintoak. Erramu zapatua aukeratu dute aurten 1981ean jaiotakoek elkartzeko. Egunagatik beragatik-edo, hogei lagun inguru baino ez ziren elkar-tu; institutuko lehen ikasturtea elkarrekin egin zutenak, gehienak. Poteoa denek batera egin ostean, Agorrosinen bazkaldu zuten. Bazkalosteko berriketak, besteak beste, institutu garaiko kontuak gogoratzeko aukera eman zien. Ondoren, luze jo zuen gauak batzuek parrandan.



1979an jaiotakoak. Herriko tabernetan elkarrekin poteoa egin eta gero, Tartufo jatetxera autobusez joan eta, bertan, lagun giroan bazkaldu zuten zapatuan 1979an jaiotako 40 bergararrek. Bazkalosteko berriketan zihardutela, musika izan zuten lagun Anji disko jartzailearen eskutik. Hasieran lotsati ibili arren, izan zen dantzara animatu zenik ere. Bueltarako, berriz autobusa hartu eta Tartufon hasitako jaiak herrian bertan jarraitu zuten batzuek.



Realzaleak, sagardotegian.

Igoa Peña, Bonba Taldie, Gontxa Taldie eta Arrasate Txuri-Urdin taldeek kideek irteera egin zuten denek batera zapatuan. Eguerdian, Usurbilgo Saizar sagardotegian bapo bazkaldu eta, indarrak hartuta, Anoetara joan ziren, zaleen animuak hainbeste behar dituen Realaren partidua ikustera. Bi pankarta atera zituzten futbolzaleek; batean, *Bonba gure betirako kapitaina* zegoen idatzita; bestean, *Gontxa, emun eurre!* Arrasatearren animuek eta futbolarien ahaleginak bat egin, eta Realak 1-0 irabazi zuen partidua.

hildakoak

- **Maria Ignacia Azpitarte Zubizarreta**
Bergaran, martxoaren 29an. 91 urte.
- **Vicente Ibarrondo Otadui**
Arrasaten, martxoaren 30ean. 87 urte.
- **Maria Montserrat Otazua Peña**
Bergaran, martxoaren 30ean. 85 urte.
- **Inocencia Kabigertua Isaseta**
Arrasaten, martxoaren 30ean. 87 urte.
- **Rafael Alonso Bocanegra**
Aramaion, martxoaren 30ean. 64 urte.
- **Jabier Arantzabal Askasibar**
Elgetan, apirilaren 1ean. 68 urte.

ESKELA

Jabier Arantzabal Askasibar

Josetxo Arantzabal Goienako langilearen aita
Elgetan hil zen 2007ko apirilaren 1ean, 68 urte zituela.

GOIENAK bat egiten du senideen saminarekin.



Elgetan, 2007ko apirilaren 2an.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdian baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €.**

GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.




zorion agurrak




BERGARA
Mikel
Elkorbereizbar
Martxoaren 23an,
9 urte. Zorionak
eta muxu handi bat
amama, aitita eta
Eliren partetik.



ARRASATE
Elene Lezeta
Martxoaren 23an,
3 urte. Zorionak,
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagun
partetik.



ARRASATE
Ixone
Garitaonandia
Uriarte
Martxoaren 27an,
3 urte. Zorionak
etxearen partetik,
bereziki Urki.



ARRASATE
Oxel Arrieta
Martxoaren 30ean,
urtebetetzea.
Zorionak, lankideen
partetik!



ONATI
Alazne Agirre
Martxoaren 30ean.
Zorionak eta urte
askotarako, etxeko
danon partetik.
Ondo-ondo pasauko
zebela espero dou!




ARRASATE
Axel Altuna
Martxoaren 30ean,
4 urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagun
partetik.



ANTZUOLA
Nora Lasa Oncala
Martxoaren 30ean,
urtebete. Zorionak,
polita! Gurasoen
eta familiaren
partetik.



ARETXABAETA
Aitor Romero
Martxoaren 31n, 6
urte. Zorionak eta
muxu handi bat
etxeko guztien
partetik, eta batez ere
Jon eta Maddi
lehengusuen
partetik.



ARRASATE
Lia eta Maixe Agirrebeña
Martxoaren 31n, urtebete egin zuten.
Zorionak eta muxu handi bat etxearen
partetik eta, bereziki, ahizpa Nahiaren
partetik.



BERGARA
Markel Laskurain
Apirilaren 1ean, 6
urte. Zorionak eta
muxu handi bat!
Etxekoak, bereziki
Ane.



BERGARA
Nora Ugalde
Apirilaren 1ean 5
urte betetzen ditu.
Zorionak eta muxu
handi bat. Izeba,
osaba eta bereziki
Maitaneren
partetik.



ARRASATE
June Villar
Lumbreras
Apirilaren 2an.
Zorionak eta patxo
handi bat, etxeko-
en partetik.



ARRASATE
Lide Villar
Lumbreras
Apirilaren 3an.
Zorionak eta patxo
handi bat, etxeko-
en partetik.



ARETXABAETA
Maialen Garai
Apirilaren 3an, 8
urte. Zorionak eta
muxu handi bat;
ondo-ondo pasatu
eguna. Lagunak.



ARRASATE
Amaia Reguera
Apirilaren 4an,
urtebetetzea.
Zorionak, prexiosa!
Etxekoak eta lagu-
nen partetik.



ESKORITATZA
Martin Berezibar
Apirilaren 5ean, bi
urte egingo ditu.
Zorionak, Pablo,
Malen eta Naroaren
partetik.



ARRASATE
Ainhoa Garro
Apirilaren 5ean,
urtebetetzea.
Zorionak eta urte
askotarako, Ainhoa!
Koadrilako
partetik.



ANTZUOLA
Inar Cabo
Mundiñano
Apirilaren 5ean,
urtebete. Zorionak
eta muxu handi-
handi bat aitatzu
eta amatxoren
partetik.



BERGARA
Iñigo Alkorta
Apirilaren 5ean, 33
urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Koadrilako
partetik.



BERGARA
Juanito Alkorta
Apirilaren 8an,
urtebetetzea.
Zorionak eta urte
askotarako.
Iñigoren lagun
partetik.



ARRASATE
EIDER CALLEJA
Apirilaren 5ean, 6
urte. Zorionak
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagun
partetik.



BERGARA
Xabi Azpiazu
Apirilaren 5ean, 8
urte beteko ditu.
Zorionak eta muxu
handi bat etxeko-
en partetik.



ONATI
Nagore Zelaia
Apirilaren 6an, 10
urte. Zorionak eta
muxu handi bat,
etxearen partetik.

jaiotakoak



Ariane Sanchez Corbella
Arrasate > 2,700 kilo. Martxoaren
27an. Gurasoak: Angeles (Arrasate)
eta Manolo (Arrasate). Argazkian,
Ariane jaioberria bere gurasoekin.



Maidar Gil del Rio
Bergara > 3,100 kilo. Martxoaren
27an. Gurasoak: Joana (Bergara) eta
Mikel (Bergara). Argazkian, Maidar
jaioberria kumatxoan agertzen da.



Auritz Esnaola Osinaga
Oñati > 3,900 kilo. Martxoaren 27an.
Gurasoak: Aitziber (Oñati) eta Mikel
(Oñati). Argazkian, Mikel txikia bere
amaren besoetan ikus daiteke.



Andoni Prieto Rodriguez
Antzuola > 3,380 kilo. Martxoaren
27an. Gurasoak: Mari Carmen (Oñati)
eta Juan Carlos (Bergara). Argaz-
kian, umea osaba Juliorekin.



Erik Tytgat Larrauri
Arrasate > 3,400 kilo. Martxoaren
28an. Gurasoak: Itsaso (Arrasate)
eta Christophe (Arrasate). Argaz-
kian, Erik jaioberria kuman.



Joseba Eduardo Sardi Santacruz
Arrasate > 3,050 kilo. Martxoaren
29an. Gurasoak: Lorena (Paraguay)
eta Jose Eduardo (Paraguay). Argaz-
kian, Joseba Eduardo amarekin.



Oxel Etxabe Elortza
Aretxabaleta > 3,650 kilo. Martxo-
aren 29an. Gurasoak: Alaitz (Aret-
xabaleta) eta Gorka (Aretxabaleta).
Argazkian, Oxel gurasoekin.



Andre Loumo Ferreira
Oñati > 3,210 kilo. Martxoaren
30ean. Gurasoak: Aldina (Oñati) eta
Sidonio (Oñati). Argazkian, Andre
amarekin eta arrea Rakelekin.



Izaro Armendariz Urrutia
Aretxabaleta > 3,510 kilo. Martxo-
aren 30ean. Gurasoak: Maitane
(Aretxabaleta) eta Alain (Eskoria-
tza). Argazkian, haurra amarekin.



Iker Gomez Cotillas
Eskoriatza > 3,400 kilo. Martxoaren
30ean. Gurasoak: Mari Mar (Arrasa-
te) eta Jose Luis (Eskoriatza). Argaz-
kian, Iker arrea Eiderrekin.



Aitana Aristegi Iturralde
Bergara > 3,940 kilo. Martxoaren
31n. Gurasoak: Oihana (Bergara)
eta Mikel (Bergara). Argazkian, Aita-
na txikia kumatxoan agertzen da.



Izeia Garai Lazkano
Aretxabaleta > 3,540 kilo. Martxo-
aren 31n. Gurasoak: Amaia (Azpei-
tia) eta Eneko (Aretxabaleta). Argaz-
kian, Izeia amaren besoetan.

BABESLEA



Miren Azkarate > Jaurilaritzako bozeramailea

"Laguntzen didan teknologia dakit soilik"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Irakaslea zen lehen Miren Azkarate. 2001eko uztailetik da kulturako sailburua Jaurilaritzan eta, 2004ko urtarriletik, gobernuko bozeramailea. Berririo irakaskuntzara bueltatuko dela dio. Euskaltzaina ere bada.

Donostian jaioa zara, baina zer lotura duzu Bergararekin?

Gurasoak biak ziren Bergarakoak, eta oraindik badut familia herri horretan.

Etortzen zara noizbehinka Bergarara?

Oso gutxitan, egia esan.

Irakasle moduan irabazi zenuen lehen soldata?

Bai; gaztetan hasi nintzen euskarako eskolak ematen, ni oraindik ikasle nintzela.

Eta egia da Europara bidaia egin zenuela irabazitako lehen txanponekin?

Egia da, bai. Interrailarekin joan ginin, hilabeteko txartela hartuta. Parisera joan ginin eta, hurrengo urtetan, beste herrialde batzuk ezagutu genituen.

Zertan duzue antza zure bi alabek eta zuk?

Adibidez, ikasle saiatsuak eta bidaiazale amorratuak garena hirurok.

Euskaraz gain, beste zein hizkuntza dakizkizu?

Espainola, frantsesa eta ingelesa. Oporrak aprobetxatzen ditut praktikatzeko, baina lan kontuetako bidaietan eta bileretan ere erabiltzen ditut.

Min ematen dizu gaizki egin-dako euskara entzuteak?

TEST-A

Herria: Donostian jaio eta bizi.
Adina: 51 urte. **Ikasketak:** Filosofia eta Letrak. **Zaletasunak:** Zinema, paseatzea eta bizikletan ibiltzea. **Gustuko film bat:** Zientzia-fikzioa ez zait gustatzen, baina gainerako generoak, bai. **Mozart:** Bulegoan neu bakarrik lanean gelditzen naizenez entzuten dut. **Kirolak:** Alab_a txikiak oraindik barre egiten du nire departamentuko parte direlako. **Erretiroa:** Paper artean egongo naiz.

Bai. Pertsona horrekin konfiantza handia badut, agian esango diot zerbait, baina bestela, ez.

Martitzena eta 13 zen Jaurilaritzako bozeramaile moduan prentsaurrekoa eman zenuen lehen eguna.

Ez naiz superstizioso; horrelakoek ez dute balio lan horretan.

Irudia zaintzen duzu?

Martitzen guztietan joaten naiz ile-apaindegira, eta begi zuloak disimulatzen ere ikasi dut. Arropa ere zaindu behar dut: koloreak aukeratu, modeloak ez errepikatu...

Armairu handia duzu etxean arropa guztiok gordetzeko?

Handia da, bai. Gero, ez dakit zer egingo dudan arropa horrekin guztiarekin, baina tira!

Teknologia gustatzen zaizu?

Ez, lanerako laguntzen didana bakarrik ikasten dut. Neuk erabiltzeko adina ikasten saiatzen naiz baina, hortik aurrera, ez dut asko saltseatzen. Ez naiz azken modeloei begira egoten.




AZKARATE Joan den astelehenean egon zen Miren Azkarate GOITBn.

o.e.

www.goiena.net

Pentsatu duzu zeinen alde bozkatuko duzun maiatzeko udal hauteskundeetan?



biharamuna

Marijo Deogracias

Heldu da

ETB2ren Teleberria ikustera ailegatu nintzen etxera atzo, Erramu domekan. Zain nintzen Iruñean batutako jendetza ikusteko eta **Xabier Amurizak** eta bere alaba **Mirenek** irakurri zuten euskararen aldeko mezua entzuteko. Baina, ez; etzan horrelakorik egon. **Afrika Baetak** aurkezten duen albistegiaren korrika Karrantzatik Iruñeara heldu izana ez zen garrantzitsua, antza. **Marijo Garmendia** kazetariarekin zuzeneko egin zuten albistegiaren amaiera aldera, baina ez AEK-ren ordekaririk ezta mezua irakurri zuten Amurizatarren ahotsik ere.

Nafarroako erreinu zaharrera heldu zen atzo Korrika eta jada **Angel**




Lertxundik aurreratu zuenez, *hamaseigarrenean aida* euskararen aldeko lasterketa. Seguru **Eduarne Brouard** hasi dela urte bi barru berriz ere euskal errepideetara aterako den korrikaren inguruan proposamenak egiten eta jasotzen.

Heldu da, beraz, Korrika eta heldu da baita ere Aste Santua; Erramu zapatuko azokak iragarri du hori eta eguna, asteen, santua izango da.

Heldu da azken txanpa baita Batzar Nagusi eta Nafarroako gobernuan ere. Heldu da hauteskunde kanpaina ere, baina heldu ote da Euskal Herria berria? **Lotinaren** garaipena behintzat heldu da.

eguraldia



MINIMOA
+04

MAXIMOA
+11

Euri asko egingo du, baina, arratsalde-gauean, egoera lasaiagoa izango dugu. Hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

1,2,3,4...Real!! | **REAL**
Alboka | **ALBOKA**
Athletic luep!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitaren ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinarra | **ARGEN**
Hartu... Mexikarra | **MEXIKO**
Hartu... Miami! | **MIAMOL**
Independentzia! | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotseke irabazi arte! | **JOTAKE**
Milezu! (noleta) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALAPA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txootx | **TXOTX**

SOINUAK hutsunea | **KODEA**
ABESTIAK hutsunea | **KODEA**
LOGOAK hutsunea | **KODEA**
JOKOAK hutsunea | **KODEA**

5767
zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | **KODEA**

DEPOR.IZENA. OSAUNA.IZENA.
ZENBAKIA ZENBAKIA

E ALONSO | **KRUTXAGA**

BILBAO.IZENA. REAL.IZENA.
ZENBAKIA ZENBAKIA

ETXEBERRIA | **ABANBURU**

LOGOAK (SMS 1) KODEA

ANOETA1 | MENDI2

ARCO | SADAR1

IPURUA | EIBARPOOL

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri

2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatuzko, jar zaituz zure hornitzailearekin hamametan. Alta ematea doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sistemari alka ematea doan dira.

* Euskaratutako 900-94-02-00 telefonora / ** Vodafone: deitu 123-ra / *** Movistar: deitu 609-ra.

3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kalera eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.